

GUaiXE.eus



Mikologia, Etxarrin eta Altsasun hitzorduak



Sakanerria >> 2-6

Dantzarima dantza konpainiak Izar hutsa ikuskizunaren mustutze bikoitza egingen du larunbatean Altsasuko Iortia kultur gunean



Kultura >> 15

Mintzakide, euskara praktikatzeko >>7

Bakaikun galdera aukeratu dute

Erabakitze eskubidea azaroaren 27an praktikatuko dute

>>9

Sakanako Laborantza Foroaren lehen bilera

Ostegunean izanen da, Arbizuko Utzugane zentroan

>>5

Donejakue bidea, nola indartu aztertzen

>>6

Katxarro eguna, ibilgailu zaharrena

Larunbatean, 10:00etatik aurrera, erakusketa eta beste Bakaikun

>>11

Suhiltzaile gehiago eskatu dituzte

>>9



Txistor festa

>>5



Zeberio Cho Oyuko puntan

>>3

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Oihan Gastamiza Betelu

Asteartean 5 urte bete zenituen eta gustura ospatu genuen. Zorionak Maddi, aita, ama, Spiderman eta etxeko guztien partez. Muxu potolo bat!!!



Lorena eta familia!!

ZORIONAK! Muxu asko aita, ama eta Ariaren partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

Altsasu

Mikologia jardunaldiak, bueltan

Hiru urteko etenaren ondoren, Altsasuko mikologia elkarteak Mikologia Jardunaldiak antolatatu ditu berriro. Eta garai bateko ohiturari eutsiz jardunaldiak Altsasuko ferien iragarle izanen dira, heldu den astean izanen baita. Asteazkenean zuzen inguruko hiru hitzaldi antolatuko dituzte. Eta jardunaldiak despeditzeko, ferietako domekan, zuzen eta onddoen erakusketa hartuko du Labadero eraikinak. Erakusketa ostiralean hasiko dira prestatzen. Zizak sailkatzen luze emanen dute. Bakarren batek hartutako zizak erakusketarako eman nahi baditu, 19:00etan agertu daiteke erakustokian. Altsasuko mikologia elkarteak 30 kidek osatzen dute eta zaletuendako ateak zabalik dituzte. Aipatu jardunaldiez aparte, Lekunberriko, Irañetako eta Araiko ziza erakusketen antolaketan laguntzen dute. Parte hartzera gonbidatu dute.

Lastailak

7-13

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Haize Berriak banda eta Arrasateko gaitariak. Lastailaren 8an, larunbatean, 19:30ean Arbizuko kiroldegian.

Ebri Knight eta Zirkunik Bez!

Lastailaren 8an, larunbatean, 21:00etan Altsasuko Gaztetxean. Altsasuko Gazte Asanblada

Nafarroako Trikitixa Eskolen arteko I. Jaialdia.

Lastailaren 9an, igandean, 17:00etan Arbizuko plazan.

Dantza

Dantza festa. Lastailaren 7an, ostiralean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean. Elai Alai dantza taldea.

Izar hautsa.

Lastailaren 8an, larunbatean, 19:30ean eta 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Dantzarima dantza konpainia.

Dokumentalak

Astral. Lastailaren 12an, asteazkenean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Salvados eta Jordi Evoleren lana.

Zinema

Gernika. Lastailaren 7an, ostiralean,

22:00etan eta lastailaren 9an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Euskal Herriko erdigunera.

Lastailaren 9an, igandean, 8:15ean Unanuko plazatik eta 9:30ean Irañetako bordatik. Independentistak Sarea.

Belate-Berute. Lastailaren 12an, asteazkenean, 7:00etan Irurtzundik. Iratxo Mendi Taldea.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Oskotz-Altsasu. (90 km). Lastailaren 8an, larunbatean, 8:00etan Altsasuko San Juan plazatik. Barranka Txirrindulari Taldea.

Dorletako ama birginaren ermitara. (10 km). Lastailaren 8an, larunbatean, 9:00etan Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. Zikloturista taldea.

Bardea beltza. Lastailaren 9an, domekan, 7:00etan Altsasuko Barranka Txirrindulari Taldeko mendi bizikleta taldearen bajeatetik.

Erakusketak

Mixed media, sorkuntza eta

adierazpenerako beste modu bat.

Lastailaren 9ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean. Yolanda Arnedoren dekorazio-arteak tailerra.

Ziza eta landare erakusketa.

Lastailaren 9an, igandean, 10:00etatik 17:00etara Etxarri Aranazko plazan. Euriarekin, frontoian.

Grezia: ziegariak gabeko kartzela.

Lastailaren 14ra arte, 17:00etatik 19:00etara, eta lastailaren 9an, igandean, egun guztian, Arbizuko udaletxeko batzar aretoan. Ekinklik.

Hitzaldiak

Urbasako eta Otsoportilloko exhumazioak. Lastailaren 7an, ostiralean, 20:00etan Ziordiko udaletxeko bideo-gelan. Hizlaria: Pako Etxeberria.

Iheslariak. Euskal erbestea 1936-2015.

Lastailaren 8an, larunbatean, 11:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. Hizlaria: Iñaki Egaña.

Andaluziaz. Lastailaren 13an, ostegunetan, 19:00etan Altsasuko gaztetxean. Hizlariak: Askapenaren Andaluziako brigadako kideak. Altsasuko Gazte Asanblada

Tailerrak

Mikologia. Lastailaren 8an, larunbatean, 9:00etan Etxarri Aranazko Larrañeta Elkartearen.

Bestelakoak

II. Katxarro eguna. Lastailaren 8an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Bakaikun.

Gaztetxokoaren irekitze festa.

Lastailaren 8an, larunbatean, 17:00etatik 1:00etara Altsasuko Intxostiapunta Gazte Gunean.

VIII. Txistorra eguna. Lastailaren 9an, igandean, 10:00etatik aurrera Arbizun.

Etxaldeko nekazaritzak eta abeltzaintzak etorkizunik badu?

Lastailaren 13an, ostegunetan, 18:00etan Arbizuko industrialdeko Utzugane zentroan. Sakanako Laborantza Foroa.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 7an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 9an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Egitaraua

>>> Lastailak 10, asteartea

19:30ean Ziza toxikazioak XXI. mendeko bigarren hamarkadan. Hizlaria: Jose Elizalde, medikuntzan doktorea.

>>> Lastailak 11, asteazkena

19:30ean Mikologia eta bizitza zikloa. Zizak sailkatzeak karaktereak. Hizlaria: Jose M^a Ausin, Altsasuko mikologia elkartekoa.

>>> Lastailak 13, osteguna

19:30ean Cortinariusei beldurra galtzen. Hizlaria: Roberto Fernandez Sasia, Abanto-Zierbanako mikologia elkartekoa.

>>> Lastailak 16, domeka

9:00etatik 14:30era Mikologia erakusketa, Labadero eraikinean. Hitzaldiak Iortia kultur gunean izanen dira.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Arbizuko Txistorra eguna
- Ziordiko memoria hilabetea
- Maite Arregirekin Greziako errefuxiatu eremuez
- Urbasako Igoera

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

LARKAREN ERAKUSLEHIOA SARITUA: Altsasuko Peñek eta Altsasuko Dendarien Elkartek erakusleio lehiaketa antolatu zuten, festak gaia hartuta. Larka arropa den-

dari eman diote saria. Bozketan parte hartu zuten Arantxa Mendozak, Aitor Bengoetxea eta Amaia Zudairek ere saria jaso zuten.

ezkaatza >>

Urtebetetzeko oparia: Zeberio Cho Oyuko gailurra zapatu du

Nuria Garciarekin batera igo zen asteartean bakaikuarra Cho Oyuko gainera (8.201 m), 33 urte betetzen zituen egunean. Kanpamendu nagusira iritsi ziren asteazkenean.

Bere lehen zortzimilakoa igotzea lortu du Javier Zeberio Arraras bakaikuarrak. Eta urtebetetze opari bikaina izan da, 33 urte betetzen zituen egunean, asteartean zapatu baitzuen Cho Oyuko gailurra (8.201 m), Nuria Garciarekin batera. Euren espedizio kidea, Joanma Romero, gailurretik 100 metro tara geratu zen. Neke handiagatik eta laino itxi eta egonkorrengatik han gelditzea erabaki zuen valentziarrak. Asteazkenean iritsi ziren kanpamendu nagusira.

Irailaren 2an hartu zuten Nepalako bidea Javier Zeberio eta Joanma Romero valentziarrak, Cho Oyu igotzeko asmoarekin. Katmandura iritsita, Lhasara jo zuten eta bertatik Tingrira. Bertan altuerara egokitzeko prozesuari ekin zioten eta handik Cho Oyuko kanpamendu nagusira iritsi ziren, irailaren 14an, aklimatazio prozesuarekin jarraituz. Cho Oyu igotzeko ibilbideari ekinenez, lehen kanpamendua muntatu zuten 6.400 metroan. Bigarren kanpamendua muntatzeko lanak nahikotxo



Zeberio eta Romero. Bakaikun bereziki, pozik jarraitu dute Zeberioaren ibilbidea.

atzeratu zitzaizkien, elurteengatik. Azkenean, 7.000 metroan jaso zuten bigarren kanpamendua eta ondoren kanpamendu nagusira jaitsi ziren, indarrak berreskuratzeke. Gailur saiakera egiterakotan bigarren kanpamendu hori 7.450 metro tara igotzea zen asmoa.

Eguraldiarekin arazoak

Irailaren 27an, hau da, aurreko asteartean, bigarren kanpamendutik gora abiatu ziren, bigarren kanpamendu hori 7.400 metro tara

igotzeko asmoarekin. "Gogorra izan zen igoera eta ezin izan genuen kanpamendua muntatu, haizearen indarragatik. Eguraldiak ere okerrera egin zuen. Zorionez, alpinista txekiar batek bere kanpamenduan hartu gintuen, bere dandan lo egiteko, eta oso eskertuta gaudete. Dena den, 7.100 metroan lo egitea gogorra da eta bere ondorioak ditu: buruko mina, eztula, zorabioak... Horrela, indarrak berreskuratzeke kanpamendu nagusira jaitea erabaki genuen" azaldu

zuen sare sozialetan Joanma Romerok. Kanpamendu nagusian zeudela, bertan zegoen Frantziako espedizioak etxerako bidea hartu zuen, kanpamenduan egoteko baimena bukatu baitzitzaien. Aldiz, egun batzuk gehiagoko baimena zuten Zeberio eta Romerok eta eguraldia hobetu arte kanpamendu nagusian geratu ziren, zain. Hurrengo hiruegunetarako eguraldion iragartzen zuten, tarte hori aprobetxatu eta igandean, urriaren 2an, martxan jarri ziren Zeberio eta Romero. "Kanpamendu nagusitik Cho Oyu gailurreko bide guztia ikusten zen, argi. Sekulako argazkia zen" adierazi zuen Romerok. Eta Memé eta Nuria Garcia mendizaleekin eta Txinako espedizio batekin batera, Cho Oyu menditontorreranzko bidetara ekin zioten. "Indarrez eta animoz ongi gaudete eta igoera saiakera ona espero dugu. Jaitsiera arte komunikazioa etengo dugu" adierazi zuten mendizaleek. Eta bigarren kanpamendura arteko bidea egin zuten.

Goizeko bostetan Cho Oyutik mundura begira

Urriaren 3an, astelehenean, ekin zioten azken ahaleginari. 10 ordu

www.racetracker.es/rt/dezer-oacim/cho-oyu

Zeberio eta Romeroren espedizioaren ibilbidearen berri ematen duen aplikazioa, satellite bidez.

luzeko bidea zuten aurretik. Azkenean, urriaren 4an, asteartean, goizeko bostak emateko gutxi falta zela, Cho Oyuko gaina zapatu zuten Javier Zeberio bakaikuarrak eta Nuria Garcia. 100 metro eskas beherago geratu zen Joanma Romero. Zuen neke handiagatik eta laino egonkorrengatik han gelditzea erabaki zuen valentziarrak, pena handiz, eta ezin izan zen Cho Oyuko punturik altuenera iritsi. Aurretik, Memé hiru garren kanpamenduan geratzea erabaki zuen, gastroenteritisak jota baitzegoen. Norberaren urtebetetze egunean Cho Oyuko gailurra zapatzea; horrek ez du preziorik. Zorionak Javier Zeberio-ri bere lehen zortzimilakoa egiteagatik.

Cho Oyuko gaina zapatu eta gero, beheranzko bidetara ekin zioten. Asteazken goizean lehen kanpamenduan zeuden (6.400 m), eta ordu batzuk beranduago kanpamendu nagusian. Ongi etorri.

berriaren app-a
beti eta edonon,
harian

Osoa • moderna • bizia



App-ean ere,
berria laguna gehiago da



berria.eus/berriaaplikazioa



Zoila Berastegi

Hobiak

astekoa

Aspaldi, diote. Baina zenbat da aspaldi ahaztu ez duenarentzat? Egun guztiak berdin zenbatzen ote dira? Eta gauak? Zenbat irauten du gau batek begiak itxi ezin dituen batentzat? Euria bota omen du ordutik. Jaiotzen ikusi ninduen lur honetan, ez da harriztekoa, berdea egarri baita gehiengan. Eguzkiak ere badaki berotzen, gero

eta hobeki, baina orduan hegoaren hegoak ere ez gintuengozatzen. Hotzak akabatzen ginen; gorputzak dardarka eta hortzak karraska. Urdailak hutsik izateak ez zuen gehiegi lagunduko, seguruen. Etxeko sutondoan ipurdia deskaruz berotzen zuten lapikoak amets. Ametsak ere elikatu egin behar, eta haiek ere, gure gorputzen moduan,

hezurretan ziren momentu hartan. Baina bat-batean iritsi zen Ametsa, hizki larriz. Bizitza honetan "handia" adjektiboa eraman dezakeen edozer bizipen bezala: ezustean. Eta hark ireki zuen atea. Eta orduan hasi nintzen korrika. Ez neke, ez gose, ez beldur. Ezpartin apurto pare bat eta bi zango. Besterik behar al da korrika egiteko?

Bai. Behar da bai. Askatasuna egi bihurtzeko beharra, gogo edo ilusioa. Eta hirurak elkarrekin badatoz, arinago egiten du korrika batek. Eta ez dakizu nor den txori, nor haize eta nor zuzeu. Batzuetan gauzak nahastu egiten dira. Oroitzen dudana azkena nire bihotzaren lehertu beharra eta nire burezurraren lehertzea. Segundo

bat bitan zatitzerik badago, horixenahikoa. Burezurra zulatua dut ordutik baina izen eta abizenak izaten jarraitzen dut. Gaiengan dut harri hau, behin norbaitek egia aireatuezzedin jarria. Baina oraindik ez du inork altxatu eta nik hemen jarraitzen dut baso honetako zulo honetan. Aspaldi izan zen...

barrutik kanpora

AHNAK errefuxiatuak laguntzen jarraituko du

Irailaren 19tik 23ra AHNA (Asociación Humanitaria Navarra en Acción) elkarte bost kide Calais eta Dunkerquera itzuli ginen, bertako kanpamenduetan sukalde bat eta jantoki bat jartzeko kokapen egokia bilatzeko eta

horretarako beharrezkoa den baimena eskatzeko asmoarekin.

Hala ere, bertan jakin genuen handik hiru astera Calaisen dagoen kanpalekua desegin nahi zutela. Dirudienez, irailaren 21ean Nicolas Sarkozy lehendakari ohia

bertan egon zen eta kanpalekua itxi eta desegin behar zutela adierazi zuen. Asmo hori askotan azaldu badute ere, orain zinez ari direlakoan gaude, Hollande lehendakariak ziurtatu duelako eta, horretaz gain, Calaiseko alkateak

kaleetan erabakiaren kontrako manifestaldietan parte hartu duelako.

Dena den, nahiz eta horren ondorioz proiektua hiru hilabetez atzeratu den, AHNA elkarteak dagoeneko janariz eta arropaz beteri-

ko hiru kamioi bidali ditu eta Calais eta Dunkerque kanpalekuak desagertzen badira ere, lanean jarraitu eta arropa, oinetakak, mantak eta abar biltzen jarraituko du Greziara bidaltzeko.

AHNA elkarte

hara zer dien

Gaztetxokoa + Gaztegunea = Intxostiapunta

Lehenik eta behin, Altsasuko Gazteria Zerbitzua osatzen dugun eragile guztiek –talde politikoen ordezkariak, teknikariak, monitorea eta gazteek– Guaixeri esker eman nahi dizkiogu bere hedabidean parte hartzeko aukera eman izanagatik. Izan ere, espazio honek gazteen arteko bilgunea izan nahi du, eztabaidalekua. Eta, bide batez, irakurle guztiek gure berri izateko aukera izango dute. Era berean, guk geure informazioa, jarduerak, iradokizunak eta zergatik ez, gure zalantzak, arazoak eta abar partekatzeko aukera izango dugu.

Gure lehen txanda denez, idazki honetan nor garen, zer egiten dugun, gure eginkizunak noren-gana bideratuta dauden, noiz diren eta zein motatako gaiak jorratzen ditugun aipatu nahi dugu. Intxostiapunta Altsasuko Udal Gazteria Zerbitzua da. Gure lana gazteria-

ri, 12 eta 30 urte bitarteko pertsonen bideratuta dago. Adin tartehau oso zabala denez, bi eremutan bereizi dugu zerbitzua. Alde batek, gaztetxokoa dago, 12 eta 17 urte bitartekoendako. Nerabezaroko zerbitzua da. Bestetik, gaztegunea dugu, 18 eta 30 urte bitarteko gazteendako.

Gure eginkizuna, zentzu zaballean, gazteriari aisialdian interesatzen zaion edozein ekintza kudeatzea dela esan dezakegu. Horregatik, ikastaro hezigarriak, tailerrak, lehiaketak, irteerak... antolatzen ditugu eta informazioa zein aholkularitza ere ematen diegu gazteei Gazte Informazio Gunean.

Intxostiapuntan aurkituko duzunaren artean ondokoak daude: sukalde bat, afariak zein meriendak prestatzeko; ziber gela, ordenagailuekin; musika entsegu gela; ikasteko gela; lagunen

arteko bilerak egiteko gela eta hainbat ekipamendu: ping-pong, futbolina, billarra, play station 4, proiektorea, mahai jolasak... dena doakoa.

Informazio gehiago nahi baduzu, jakin ezazu Intxostiapuntak ez duela urtean zehar ixten eta ondoko ordutegia duela: goizez, 7:30etik 15:00etara, eta arratsaldean, astelehene ostegunera eta igandetan eta jai egunetan 17:00etatik 21:00etara, ostiralean eta larunbatetan 17:00etatik 22:00etara eta ekintza berezietan 17:00etatik 01:00etara. Gurekin harremanetan jartzeko ondoko bideak dituzue: intxostiapunta@altsasu.net, gazteria@altsasu.net, 948 564 785, 608 617 778 (WhatsApp), Facebook, Twitter eta Instagram.

Zuen etxea izango delakoan..... itxaroten zaituztegu!

Altsasuko Gazteria Zerbitzua

objektibo tik



Feriako protagonistak pantailara

Herriko abeltzainek zaldi, behi, txerri, ardi, ahuntz... onenak eramantzen zituzten Etxarri Aranazko ferietara. Eta haiei begira-begira geratu ziren Etxarri hurbildu ziren guztiak. Zaldien aurrean aho zabalik zegoen mutila, eta uena betirako gorde nahian, telefonoa eskatu eta argazkia ateratu zuen. Zein zaldi puska! Ederra, ezta???

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus
Guaixe


ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:
BAZKIDEAK
Mank
 s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburordetza

NAFARROA OINEZERA: Hilaren 16an Viak Nafarroa Oinez hartuko du. Sakanako ikastolek hara joateko autobusak antolatuta dituzte. Baita Aizpeak eta Biltokik ere.

Irurtzenen ohiko tokitan eman izena. Lankuntzakoan joateko 696 568 929ra mezua bidali. Azken bietan 10 euro da bidaia.

sakanerria >>

SAKANA

Sakanako Laborantza Foroaren aurreneko hitzordua

Ostegunean, 18:00etan, Arbizuko Utzugane garapen zentroan

Lehen sektorean lan egiten duten ibarreko nekazari eta abeltzainak Sakanako Laborantza Forora gonbidatuta daude. Sakanako Garapen Agentziak sustatu du foroa. Ibarreko lehen sektorearen topagunea izateaz aparte, bilkurek beste eskualdeetako lehen sektoreko esperientziak ezagutzeko aukera emanendu. *Etxaldeko nekazaritzak eta abeltzaintzak etorkizunik badu?* Galdera hori Sakanako Laborantza Foroaren aurreneko hitzorduan egingen da. Eta erantzun idokiko ordezkariek emanen dute. Ipar Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkarteak da idokiko, laborariak 1989an sortu zutena. Honako helburuak ditu elkartek: etxe-ekoizleak defendatu, ordezkatu eta egituratu; elkarrekin informazioa hartu, trukatu eta eskuratu eta Euskal Herriko etxe ekoizpenak identifikatu, ezagutarazi eta saldu. Horretarako, etxe ekoizpenen transformatzea eta saltze eta komunikazio urratsak lagundu eta 1992an sortutako Idoki kalitate ziurtagiria ezagutarazten du. Elkarteak bere ibilbidean hainbat lan-ardatz landu ditu etxe ekoizleak egituratzen laguntzeko, produktuen kalitatea eta berezitasunak kontutan hartuz. Guztia "laborantza iraunkorra" bulkatzeko.

Arbizu

Txistorra, eta askoz gehiago

Igandean ospatuko da Txistorra egunaren zortzigarren edizioa

Musikarekin hasi eta bukatuko da aurten Txistor eguna. Bezperan, bihar, Haize Berriak bandak kontzertua emanen du. Eta etziko egitaraua trikitixa eskolen aurreneko jaialdiarekin despedituko da (ikus 15. orria). Musikak doinua jarriko dio, beraz, festa-ko protagonistari: txistorrari. Monika Etxeberria zinegotziak aurkezpenean adierazi zuenez, "txistorraren enbaxadore onenak herriko ekoizleak dira: Arbizu, Flores eta Laket".

Hiru enpresa ekoizleek salmenta postua izanen dute kale Nagusian izanen den azokan. Haiekin batera beste 30 bat salmahai izanen dira. Haietan artisau eran egindako gaztak, pastelak, ezti eta beste hainbat jaki dastatzeko eta erosteko aukera izanen da. Bestalde, gazta nola egiten den erakutsiko dute Arbizuko Juananeko gaztandegiko artzainek.

Dastaketak, bi

Igandean Arbizuko plazatik pasatzen denak txistor pintxoak dastatzeko aukera izanen du. 100 bat kilo txistor prest dituzte 2.000 pintxo inguru banatzeko. Pintxo eta baso bat ardo 2 eurotan eskuratu dira. Antolakuntzak jakinarazi du prezioan aurten "igoera txiki bat" izan dela.

Baina txistorrarekin batera



Txistor Egunaren aurkezpen agerraldia.

berritasuna dago aurten: erretako euskal txerriaren haragi pintxoak dastatzeko aukera izanen da ere. Aitor Mendoza arbizuarrak arraza horretako txerrien haztegia jarri du. Antolatzaileei txerria zikiro eran, burduntzian erretzeko proposamena egin zuten. Iganderako prest egoteko, txerriagau osoan erretzen egonen da, su motelean. Haragia moztzen eta banatzen eguerdian hasiko dira, txistorrarekin batera.

Garai batekoa

Gaur egun txistor gehiena edo guztia fabriketan egiten da. Etxeberriak gaztigatu zuenez, "kome-

ni da erakustea gauzak nola egiten ziren garai batean, etxean". Urtero moduan emakume talde batek, jendaurrean, txistorrak, tripotak eta txerri belarriak prestatuko ditu. Beste batzuek txantxigor opilak egingen dituzte. Ukenak eta sendabelarrekin zerikusia duten kontuak nola egiten diren ere ikusgai izanen da. Txistorra egunak hori guztia ikusi eta dastatzeko aukera emanen du. Eliza ondoan dagoen zotolan euskal txerriak ikusgai izanen dira.

Bestalde, pintxo lehiaketara zazpi parte-hartzaile aurkeztu dira. 8. edizio honetako epaimahaia

Egitaraua

>> Lastailak 8, larunbata

19:30ean Haize Berriak banda eta Arrasateko gaitariak, plazan.

>> Lastailak 9, igandea

10:00etan Arbizuko fanfarrean, herrian barna.

10:30ean Txistor egunaren hasiera eta merkatuaren irekiera.

11:00etan Nafarroako trikitilarien bilkura, Xapiru eskolaren eskutik.

11:30ean Pintxo lehiaketaren hasiera.

13:30ean Pintxo lehiaketaren sari banaketa.

15:00etan Merkatuaren itxiera.

17:00etan Nafarroako Trikitixa Eskolen arteko I. Jaialdia.

Javier Diaz (Alhambra jatetxea), Fernando Flores (Enekorri jatetxea), M^a Jesus Telleria (Segura Irratikotako esatari izandakoa), Manoli Arza (sukaldaria) eta Mari Paz Barandiaran (arbizuarra).

Arbizuarrei esker ona

Egunaren aurkezpenean lehen hitzak egitaraua posible egiten duten arbizuarrak eskerrak emateko izan zituen Etxeberriak: "haiek gabe festa egun hau ezinezkoa litzateke". Antolaketako lan guztiak arbizuarrak egiten direla nabarmendu zuen: publikitate, muntaia, pintxo salmenta, lehiaketa, txerrien ingurukoak, erakusketak...

Castillo de Monjardin eta Vega del Castillo upategiei ardoa emateagatik eskerrak eman zieten. Baita antolakuntzan lagundu duten Cederna-Garalurri eta Sakanako Garapen Agentziari ere.

ALFA54

INMOBILIARIA

San Juan 54 behea ALTSASU

948 562 711 / 679 308 443

olaga@iaalfa.es www.alfainmo.com



LIZARRAGAN

Erreformatzeko etxea. 2 solairu 71m2 bakoitza.


30.000 €



ALTSASUN

Apartamentu berria. Garaje + trastelekua. Sukaldea jantzita. Alokairua erosteko aukerarekin.


125.000 €



ALTSASUN

65m2ko pisu erreformatua. Hornituta. Oso argitsua.

70.000 €



ALTSASUN

90m2ko pisua + garajea itxita+trastelekua. Igogailua. Altzariz jantzita.

150.000 €



ETZARRIN

Berritutako apartamentua. 72m2. Oso argitsua. Bista ederrekin. AUKERA!

70.000 €



ITURMENDIN

403m2. Eraikitzeko lursaila. Oso ongi kokatuta.

60.000 €



OLAZTIN

"El Molino" 570m2 etxea+654m2ko lursailarekin. Aukera asko. Galdetu konpromezurik gabe.

120.000 €



ALTSASUN

120m2ko Duplexa. Garaje+trastelekua. Altzariz jantzita. 4 logela+3komuna. Igogailua.


185.000 €



ALTSASUN

76m2ko pisu berritua. Trastelekua. Altzariz jantzita.

99.000 €



LAKUNTZAN

Adosatua lorategiarekin. Gutxi erabili. Su baxua. Hornituta. Barbakoa. Txokoa.

182.000 €



URDIAINEN

80m2ko pisua. Altzariz jantzita. 3 logela + komuna. Trastelekua. Pellet berogailua.

80.000 €



OLAZTIN

67m2ko pisua + trastelekua. Mantentze gastu gutxi.

40.000 €

SAKANA



Tropelak historia duen bidean barna zeharkatu zuen Sakana.

Donejakue bidea berreskuratzeko lanean

Sakanako Garapen Agentzia pausoak ematen ari da. Egiteko dagoen ibarreko turismo planaren osagaietako bat litzateke

Sakanako Garapen Agentzia (SGA) ibarra zeharkatzen duen Santiagorako bidea, Donejakue, bide ofizial bat izatean nahi du. Hala azaldu digu Iker Manterola garapen agenteak. Horretarako aurreproiektua lantzen ari da SGA. Hartan aukerak, kostua, eman beharreko pausoak eta beste zehazten ari dira. "Guztia zehazteko Nafarroako Gobernuarekin ere hizketan ari gara" gaineratu du Manterolak. "Donejakue bide honi guk puntu ezberdin bat eman nahi diogu. Bide guztia bizikletaz ibiltzeko izan dadila nahiko genuke".

Manterolak gogora ekarri digu, Donostia eta Iruña lotuko duen Plazaola ibilbidea Europako bizikleta sarearen barruan izan dela. "Bizikletaz Europatik heldu den jende horrendako jarraibide bat izan daitekeela. Eta, batez ere, Lizarrako bideari alternatiba. Hori jendez gainezka dagoela entzuten ari gara". Udal ordezkariak beste onura bat ikusi diote egitasmoari: "bizikletaz herrien arteko lotura seguru bat izatea".

Turismo produktuak

SGA "turismo arloko oinarriak jartzen, planifikatzen" ari da. Sakanako Turismo Plana egiteko asmoa dute. Aisia eta mugikortasuna lan ildoak dira ere. "Daukaguna zehaztuta izan eta aurrera begira nola landu nahi

dugun". Turismo teknikaria kanpo aholkulariekin ariko da, "gure ikuspegia aberasteko". Aurretik egindako bidean aurrera ere egiten dute, esaterako Bidelagun elkartearen eskutik. "Aurtengo helburu nagusia produktuak zehaztea izan da. Garen hori eta dugun horri forma eman kanpotik etortzen denari helarazteko".

Azken horren inguruan adibidea jarri du Manterolak: "bizikleta eta mendi lasterketen inguruan produktu bat osatzeko lanean ari gara. Lasterketak, bideak dauzkagu. Baina bizikletarekin etortzen den jendeak, edo mendi lasterketak egitera etortzen direnak zer bitzitu beharko litzuzke? Fisioterapeutarik behar du? Bizikleta konpontzeko materialak behar ditu landetxean? Bestelako materialak emanen dizkion norbait behar du? Interesa dutenendako hori guztia modu erraz eta antolatuta batean jartzea litzateke".

2010eko egitasmoa

Sakanako Mankomunitateak 2010eko aurrekontuan 358.000 euro aurreikusitako zituen Irurtzun eta Ziordia lotuko lukeen bizikletendako ibilbidea egiteko. 2011n Mankomunitateko presidentek kargua utzi zuenean Migel Angel Zubiriak esan zigunez, "dirua ez izatean proiektu batzuk hankaz gora gelditu dira: gobernuak finantzatu behar zuen bizikleta planeko ibilbidea" zen horietako bat.

Altsasu

Festa handia gazte txokoa zabaltzeko

Saio berria abiaraziko du Intxostiapunta gaztetxokoak bihar.

Denboraldi berria mustutzeko Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak irekiera festa antolatu du. Intxostiapuntatik bihar 17:00etatik 1:00etara pasatzen direnek musikarekin, jokoekin, karaokearekin eta afariarekin gozatzeko aukera izanen dute. Afaltzera animatzen direnek 3 euro ordaindu beharko dituzte.

Bestetik, Intxostiapunta gazteguneko ordutegi berria mustuko du ikas-



turte honetan: asteleheneretik ostegunera eta domeketan eta jai egunetan 17:00etatik 21:00etara izanen da zabalik; ostiralean eta larunbatetan, berriz, 17:00etatik 22:00etara. Azkenik, Gazteria Zerbitzuak jakinarazi du hilaren 23an, 18:00etan, ate irekien eguna egiten dutela.



Gaztetxearen 26. urteurren ospakizunak merendu eder batekin hasi ziren.

Gaztetxean urteurren ospakizunen taupadak

Herenegun 26 urte bete ziren gazte altsasuarrek Txiki Polita kaleko 13. zenbakiko eraikina okupatu zutela.

Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) etxajua piztu eta merendurekin gogoratu zuten efemeridea. Ondoren, asteazkeneko moduan, batzarraren egin zuten. Asteburuan urteurrenaren ekitaldi ugari dituzte. Bestalde, hurrengo hiru asteartean argazkiak digitalki moldatzeko Photoshopp programaren ikastaroa hartuko du gaztetxeak.

Hala ere, AGAkoek gogoan izan dituzte 80ko hamarkada erdialdean "beraien buruak astinduz, eskuak elkartuz eta oinak martxan jarriz, elkarbizitza ekin ziotela. Asanblada eta autogestioa ikur hartuta, geroa AGA izan zen zena sortu zuten". Okupazioarekin eraikina "herriko bihotz" bihurtu zutela nabarmen-

du dute. AGAkoek gaineratu duteenez, "zuen taupadak bizirik mantentzen dute bihotz hau eta bihotza gazte mantentzen da oraindik ere". Urteurren ospakizunetan "mila taupada izan dira bihotz erraldoi eta gazte honekin batera ozen entzuten direnak".

Egitaraua

>> Lastailak 7, ostirala 17:00etatik aurra Haurren txokoa: txokolate-jana, puzgarria eta zirkoloretsuaren tailerrak.
21:30ean Afaria, gaztetxean.
23:00etan Superella klowna eta Tandem taldearen kontzertua.

>> Lastailak 8, larunbata 11:00etan Kalderete prestaketa.
15:00etan Altsasuko gaztetxearen XXVI. Kalderete txapelketa. Ondoren jokoak.
18:00etan Elektrotxaranga.
21:00etan Kontzertuak: Ebri Knight eta Zirkinik bez!
22:30ean Magrak.

>> Lastailak 13, osteguna 19:00etan Askapenako Andaluziako brigaden hitzaldia, gaztetxean.

Etxarri Aranatz

Mikologia eta botanika klasea

Igandean, 10:00etatik 17:00etara, plazan. Euria eginez gero frontoian

Bertako zizaz eta landarez betetako mahai luzeak. Mikologian eta botanikan zaletuak direnendako gozamen. Eta interesa dutenendako ikasgela. Horretan bihurtuko da Etxarri Aranatzko plaza etzi. Antolakuntzan ari den Ventura Mundiñanok esan digunez, "momentu zize klase gutxi de. Jendie onttuek hartzen ai dala esaten dau. Eurik ez eitten landare batzuk ez de hain politte ta beste batzuk sekatu ein die". Baina erakusketa "politte atiako" dela ziurtatu digu. Aurreko urteetan bezala, zizak dastatzeko aukera izanen da. Iturri Eder, Derry, Iratxo, Leku Ona eta Xapatero tabernetan zizak osagai dituzten pintxoak izanen dira.



Ferietan ederki

Eguraldia lagun, Etxarriko feriek jende asko erakarri zuten. Larunbat arratsaldeko tailerren ondoren dantzaldi animatua eskaini zuen Tximeletak. Igande goizean, berriz, plazan, alde batetik, 20 bat artisau postu eta, bestetik, herriko abeltzainen azienda loteen erakusketak zegoen. Egurdian, 13. aldiz Sakanako gazten txapelketa jokatzen. Lehiaketara zortzi gazta aurkeztu zituzten ibarreko artzainek. Idiazabal jatorri izendapeneko Joxerra Agirianoren gidaritzapean Larrañeta elkarteko Martin Loban, Hartzabal elkarteko Urko Mundiñano eta Karrikestu elkarteko Pablo Jauregi izan ziren epaileak. Lehen saria Uharteko Gaztak jaso zuen, Maialen Martiarenak (100 euro). Bigarren sariak Arruazuko Albi gaztandegiak lortu zuen (70 euro). Eta podiuma Arbizuko Arriña-Etaioi eskuratu zuten (40 euro).

Altsasu

Solera fundazioak Josefina Arregi klinika lagundu du

Alzheimerren nazioarteko egunean, irailaren 21ean, Solera fundazioko Borja Macaya Ripodas Josefina Arregi klinikaren egon zen. Haren eskutik Juan Manuel Vicentek, kudeatzailea, eta Iosune Lopez de Goikoetxeak, gizarite langilea, klinikarako 3.000 euro jaso zituzten. Klinikako ordezkariak esker ona adierazi diote Solera fundazioko langileei, senideei, erabiltzaileei eta laguntzaileei: "haien ekarpen esku-

zabalak Felipe Lecearen proiektua errealitate bihurtzen du". Zehaztu dutenez, jasotakoa azpiegiturak hobetzeko eta osasun-materiala erosteko erabiliko da. Hala, erabiltzaile askok jarraitu ahaliko du arretapsikogeriatrikorako zerbitzu ambulatorioa eskura izaten.

Macayak azaldu zuen donazioko dirua Solera fundazioak, AFAN elkartek eta klinikak berak antolatutako Art. Alzheimer ekimene-

tik atera zela. Haren helburuan herritarrak gaixotasunaren inguruan sensibilizatzea eta nagusien bizi-kalitatea hobetzeko proiektu eta ekimenei laguntza ematea zen. Ideia eguneko zentroko erabiltzaile iruindar baten alabarena izan zen. Haren aita, Pepe Cachairo, margolaria da eta hainbat galeriatan erakusketak egin ditu. Iruñeko bigarren zabalguneko Solera fundazioko zentroko erabiltzaile-



lea zen eta Altsasutik ere pasa zen. Cachairok makina bat koadroko dohaintzan eman zituen. Haiek era-

kusketan jarri eta saldutakoa hiru erakunde antolatzaileen artean banatu dute.

SAKANA

Mintzakide, praktikatu eta bizi euskara

Sakanan, dagoeneko, Irurtzunen, Etxarrin, Urdiainen, Altsasun eta Ziordian sortu dira Mintzakide taldeak. Eta gehiago izanen dira

Inguruan ez dutelako edo ikasi berri dutelako eta lotsa dutelako; aukera ez dutenei, euskara praktikatu eta bizitzeko aukera ematen die Mintzakide programak. Sakanan AEK arduratzen da haiek kudeatzeaz eta Edurne Ruizek azaldu digunez, "beren tokia hartu dute mintzapraktika egiteko programek; aisialdiaren garai honetan, aukera bikaina ematen diote jendeari euskaraz hitz egiteko, jendea ezagutzeko eta, hainbat jardueraren bidez, ederki pasa-

tzeko, bizitzeko".

Ruizek azaldu digunez, Sakanako Mintzakide edo Gurasolagun taldeetan izena emateko epea zabalik dago. Bien arteko alde bakarra da: Mintzakiden edozeinek eman dezake izena; Gurasolagunen, berriz, haurrek eta gurasoek,

aisialdiaz gozatuz, euskaraz bizitzeko aukera eskaintzen du. Bai batzuek bai besteek astean behin taldean euskara praktikatzeko dute helburu bakarra. Euskaraz hitz egiteko modu ugari daude: tabernan gustura elkartzea, bizikletan buelta ematea, basoan pasioan ibiltzea...

Helburuak

Mintzakide programan izena ematen dutenek, bere helburua

Izena ematea

Edozein sakandarrek eman dezake izena 600 482 024 telefonoaren edo sakana_mintza@aekeus e-postaren bidez.

Sakanako Mintzakide ezagutzeko

www.sakanamintza.blogspot.com
Facebook: Sakanako Mintzakideak



Ziordiko mintzakide-kuadrillaren "sefie" bat.

betetzeko aukera dute: euskaltzegan ikasitako praktikatu, euskaraz egiteko toki eroso bat izan, zuzeneko bidea izan inguruko

euskaldunak harremanetan jartzeko... eta, batez ere, aukera aparta da gustura egiteko eta aisialdiaz gozatzeko.

>> Etxarri / Altsasu

Udalek inbentarioak egiteko diru-laguntza jaso dute

Etxarri Aranzako eta Altsasuko udalek euren ondarearen inbentarioa eginen dute, bai ondasunena bai esku-bideena baita zoru inbentarioa ere. Horretarako, udalek laguntza teknikoak kontratu behar dute. Etxarri Aranzako Udalak 7.240 euro bideratu dituzte horretarako eta Altsasukoak 7.260. Inbertsioa Nafarroako Gobernuarekin erdibana estaliko dute.



SAKANA

Mendialdean ekonomia jarduera eta enplegua sortzeko 6 milioi euro

Cederna-Garalurek diru-laguntza deialdia egingen du. Hartara ibarreko ekintzaila, enpresa, udalak edo edozein entitatek aurkeztu dezake bere proiektua

Nafarroako Gobernuak 17 milioi euro bideratu ditu 250 udalerritan jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzea ahalbidetuko duten estrategiak sustatzeko, lurralde osoan garapen orekatua lortzeko xedez. Helburu horrekin Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko Departamentuak, lankidetzaz hitzarmenak sinatu ditu Nafarroako Toki Ekintzako

Taldeekin. Horien artean dago Cederna-Garalurek elkarrekin, 5.997.990 euro jasoko dituen. Maite Iturre lehendakariak sinatu zuen hitzarmena.

Hitzarmenak 2014-20 Landa Garapeneko Programaren (LGP) LEADER ekimenaren barnean ezarri dira. 17 milioi euro horietatik, 11 Landa Garapeneko Europako Nekazaritza Funtzarekin (FEADER) batera ordainduko dira, eta gainerako 6 milioiak Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu osorik. Hitzarmenak aurkeztu



Urtean zehar Sakanan ospatzen den azoka baten irudia.

an, Isabel Elizalde kontseilariak Leader ekimenarekin aurrera jarraitzeak duen garrantzia azpimarratu du, "funtshoriek gure landa-ingurunearen garapen orekatu baterantz joateko oinarritzko zutabe bilakatu direlako, eta inbertsioa, enplegua sortzea eta nafar

guztien bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetzen dutelako". Ildo horretan, iragarri du Gobernuak martxan jarri duela LGP aldatzeko prozesua eta, horri esker, 1,5 milioi euro (1.528.000 €) handitu ahal izango dela toki-ekintzako taldeentzako diru-kopurua. +www.guaixe.eus

SAKANA

Zuretako Guaixe-ko azal, eduki eta ikus-entzunezko onenak zein dira?

Sakandarrak www.guaixe.eus bidez aukeratu dituzte Guaixek Tokikom Sariak-era aurkeztuko dituen lanak

Euskal Herri osoko 60 toki komunikabide batzen dituen Tokikom-ek, Toki Komunikabideen Batera-

guneak. Toki komunikabideek ekarpen handia egiten diote gertuko komunitateari, ikuspuntu informatibotik zein komunitatearen dinamizazioaren ikuspegitik, baina hala ere, bigarren mailakotzat jotzen dira sarritan. Tokikom-ek irudi hori apurtu eta euskarazko komunikabide txikien lana gizarteratu eta aitortzeko asmoz Tokikom Sariak banatu ditu estreinakoz aurtun. Sariak komu-

nikabideotan egiten den lana ezagutarazi eta hizpide bihurtu nahi du Tokikom-ek.

Hiru sari banatu ditu Tokikom-ek, 2015eko irailaren 1etik 2016ko irailaren 1era toki-komunikabideetan argitaratutako lanen artean: portadarik onena, edukirik onena, eta ikus-entzunezko onena. Sarietarako hautagaiak aurkezteko epea lastailaren 14ra arte zabalik daude. Guaixe funda-

zioak lehiaketan parte hartzea erabaki du. Baina aurkeztuko dituen lanak irakurleek aukeratzeko erabaki du. Hala, heldu den astearte eguerdian arte azken urtean argitaratutako hainbat azal web gunean ikusgai izanen dira. Gogokoena alde botoa eman eta boto gehien duten azalak lehiaketara aurkeztuko ditugu.

Ikus-entzunezkoak ere sortzen ditu Guaixek. Haietako hiru auke-

ratu ditugu. Hiru horien artean aukeratzeko www.guaixe.eus-en inkesta jarri dugu. Gogokoena alde egin eta babes gehien jasotzen duen bideoa aurkeztuko dugu Tokikom Sariak-era. Azkenik, edukiak daude. Askok direnez eta irakurleen gustuak ere anitzak direnez, gogoko artikulua, erreportaje edo elkarrizketa zein den adieraziz fundazioa@guaixe.eus e-postara mezua idatzi daiteke.



Aldatzea jarrera bat da. Irabaztea gogobetetzea.

Hyundai Tucson Berria. Espainian 2016ko kotxerik onena.

Aldaketaren apustua egin eta irabazi dugu. Sari handi bat lortu dugu: Espainian 2016ko kotxerik onena izatea. Kotxe handi bati saria baina batez ere jarrera bati. Mila esker Hyundai Tucson kotxean apostu ezberdin bat ikusi duzuenoi.

Aldaketaren poterea nabaritu www.hyundai.es-en



AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Gama Hyundai Tucson: Isuriak CO₂(gr/km): 119-175. Kontsumo mixtoa (l/100km): 4,6-7,5.

Non erabili

T.IRIRARTE

IRURTZUN

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU

Bandalux 59,00€/m² (eskaintza berezietan izan ezik).

ML MODA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

MARTXUETA

IRURTZUN

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua depilazioetan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ

Dendako produktuetan % 5eko deskontua.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

>> Altsasu

“Errefuxiatuek ez dute ulertzen zergatik tratatzen ditugun horrela”

Maite Arregi altsasuarra bi astez egon da Greziako Errefuxiatuen Eremuetan lanean

Erkuden Ruiz Barroso

Duela urte batzuk Greziatik bidaiaria egin ondoren, Maite Arregi Uribe altsasuarra konturatu zen errefuxiatuen eremuetako telebista ikusten diren irudian “hemendik gertu” gertatzen zirela. Lagun batzuekin Barañain Errefuxiatuekin taldea sortu zuen. Eremuetara bidaltzeko materiala eta arropa jaso ondoren, Nafarroako Suhiltzaileen Kolektiboa, HELP-NA, ezagutu zuten eta beraiekin Greziako eremuetara joatera “animatu” zen. Bertan ikusitakoa “gogorra” izan zela aitortu du eta “emozioz eta sentazioz” beteriko esperientzia bat izan dela dio. Orain, “haien” ahotsak entzutea nahi dute.

Hasieran Arregik beldurra izan zuen, ez zekiela bertan zer egin zezakeen. Baina, HELP-NAko kideen erantzuna oso zuzena izan zen: “pertsonek bakoitzak beti zer edo zer eskaintzeko du han”. Greziara agorriaren 5ean abiatu ziren eta 19an itzuli ziren. Bost eremutan sartzeko baimena zuten: Cherso, Lagadikia, Vasilika, Sindos eta Sinatex. “Militarren eremuak dira eta baldintzak oso zorrotzak dira. Sartzeko zure izen abizenak eta nortasun agiria eman behar duzu”. Egoera larria ezkutan mantentzeko egiten dutela uste du Arregik: “ez zaie komeni bertan kanpoko pertsonak sartzea. Argazki kamerekin sartzea, adibidez, asko kontrolatzen dute”.

Eremuak harresiz inguratuta daude eta poligono industrialetan edo larreetan daudela kontatu du Arregik: “kanpalekuak larrialdi baterako pentsatuta daude, denbora labur baterako. Ez bertan bizitzeko”. Kanpin-dentan bizi dira eta lotarako hamakak dituzte. “Batzuk pabilioietan daude, beste batzuk, aldiz, kanpoan”. Arregik azaldu duenez, udan bero handia egiten du eta neguan hotza. Gainera, uholdeak izaten dira. Komunak behin behinekoak dira eta garbitzeko ur txorrotak gutxi daudela esan du: “1.500 pertsonako eremu batean 15 komun dau-



Maite Arregi goian, Errefuxiatu-eremuak. AMAIUR MARTINEZ LAZKANO

de”. Egoera larria dela adierazi du, baina, Arregiendako “okerrena” irudi horiek ikustera “ohitzen” ari garela da.

Bizi baldintza gogorrak

“Begiara begiratzen dizute eta galdetzen dizute: noiz arte”. Gizon batek Siriako gerraren aurretik haien etxean Afganistango jendea hartu zutela kontatu zion. “Harritzen dira. Ez dute ulertzen zergatik tratatzen ditugun horre-



ez daude eremuetan. Gainera, etnia, kultura eta erlijio ezberdineko jendea nahastu dituzte, eta horrek elkarbizitza arazoak sortzen ditu. “Ez diete ezer egiten uzten. Haien proiektu txikiak aurrera eraman nahi dituzte, auto-gestionatzeko ahalmena izan nahi dute. Baina ez diete uzten”. Kari-tateaz bizi dira. “Janaria hartzen dutenean lotsatzen dira. Ez dute hori nahi”. Etorkizunean haien herrira itzultzea nahi dute. “Ihes egiten ari dira”.

Nafarroako taldeak berdintasunetik lan egiten zuten, “ez karitatetik”. Bi astez txandekin lan egiten zuten, nahiz eta batzuk denbora gehiago egon. Bi lan ezberdin egiten zituzten bost eremuetan. Talde batek barazkiak eta fruitak erosi eta banatzen zituen. “Guk haien janaria sukaldatzea nahi genuen”. Autonomoak izateko aukera eskaintzen zieten. Bestetaldak su-itzalgailuak jartzen eta mantenu lanak egiten zituen.

Salaketa

Garrantzitsuena bertan egon izana eta bertakoa ikusi ahal izatea dela dio Arregik. “Jende asko ezagutzeko aukera izan dugu eta haien hitz egin nahi dute. Haien egoera ezagutaraztea nahi dute”. Hortaz, Barañain Errefuxiatuekin taldeak Just People dokumentala sortu du errefuxiatuei hitza emateko. Azaroaren 3tik aurrera egon da ikusgai. Gainera, blogbatean haien lanaren berri emanen dute: ongbomberosdenavarra.blogspot.com. “Salaketa oso garrantzitsua da”. Hitzaldiak egiten ari dira Iruñerrian eta Sakanan ere zerbait antolatzen ahalik luke. “Salaketa horren bidez politikariak entzuterako derri-gortu nahi ditugu”. Politikariak errua haien gainetik kendu nahi dutela salatu du Arregik, eta mugak ahalik eta urrunen jartzen dituztelagaineratu du. “Herrialde horiek seguruak balira bezala jartzen dituzte mugak. Lotsa guzti hori Europatik kanpora bidali nahi dute”. Egoera konpontzea nahiko luke Arregik, baina “zaila” ikusten du. Hortaz, ez bada konpontzen itzuliko zela dio. +www.guaixe.eus

>> Arbizu

Greziako errefuxiatu eremuak ikusgai

Greziako ziegari gabekokartzela argazki erakusketa Arbizun aste batez ikusgai izanen da. Iruñeko Ekinklik kolektiboak irudietan jasotako Greziako dauden errefuxiatu eremuetako erre-alitatea eta argazki erakusketa prestatu du. Gaurtik heldu den ostiralera bitarte Arbizuko udaletxeko batzar aretoan ikusgai izanen da erakusketa, 17:00etatik 19:00etara. Igandean, Txistor eguna dela eta egun guztian ikusteko aukera izanen da.

>> Etxarri Aranatz

Euskal erbestez jakiteko

Oroimenetik askatasunera, zutik dirauen herria lelopean hitzaldia eta ekitaldia antolatu ditu ezker abertzaleak biharko. 11:30ean Euskal Memoria fundazioko Iñaki Egañak hitzaldi aurkezpena egingen du kulturetxean. *Iheslariak. Euskal erbestea 1936-2015*. Hura despedituta, 13:00etan, kanpo santuan lore eskaintza egingen da. Aurten Juan Inazio Erdozia, Axio, hil zela 37 urte bete dira.

>> Olatzagutia

Sanmigeldarrek 40 urteurrena ospatu zuten

Vicente Argomaniz plazan kokatuta dagoen San Migel elkarteak 40 urte bete ditu eta bazkideek larunbatean ospatu zuten. Urteurrenako egun osoko egitaraua prestatu zuten. Hamarretakoa eta gero, hurrengo jolasak izan ziren. Eguerdian herriko bi aizkolariren erakustaldia izan zen. Talde argazkia egin ondoren sagardotegi menua dastatzera 68 kide elkartu ziren. Ospakizuna giro ede-

rrean egin zen. Txarangaren doinuak lagunduta kalejira egin zuten eta ospakizuna iluntzarekin batera despeditu zuten. Urteurrenaren oroigarri gisa bazkide guztiek elkartean irudia eta 1976-2016 data dituen kamixeta jaso zuten. San Migel elkarteak 83 bazkide ditu. Haien jubilatuta daudenak gehituz gero ehunera iristen dira. Hala ere, bazkide egin nahi duenak horretarako aukera lukeela azaldu digute. Mus txapelketak antolatu izan dituzte, baina pilota txapelketagatik da ezaguna elkarteak.

SAKANA

Suhiltzaile gehiago eskatu dituzte

Makina bat suhiltzailek Nafarroako Jauregiaren parean kontzentrazioa egin zuten asteartean eta zerbitzu publikoen alde, suhiltzaile gehiago behar ditugu leloa zuen pankarta zabaldu zuten. Nafarroako suhiltzaileen langileen batzordeko buru Iñigo Balbask gaztigatu zuenez, "oso egoera larrian dago suhiltzaileen zerbitzua, eta gizarteak jakin behar du. Suhiltzaile gehiago behar direla, zerbitzuaren etorkizuna bermatu ahal izateko".

Gaur egun 340 suhiltzaile daude herrialdean eta haien 388 izan beharko lirakeela defendatzen dute. Jakinarazi zuten, Altsasuko suhiltzaileen etxean hiru suhiltzaile egon beharko lukete uneoro, "aurten, behin baino gehiagotan bi bakarrik egon dira". Lau alderdiek babesten duten gobernuak proposatu-



Suhiltzaileen egoitzaren irudia

takoneurriak "behin-behinekoak" direla nabarmendu zuen.

Mari Jose Beaumont Presidentetza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia kontseilariak suhiltzaileen aldarrikapenak "zilegizkoak" direla aitortu zuen. Abian den Lan Eskaintza Publikoa ezin dela moldatu argitu zuen. Azaldu zuenez, apirillean 30 suhiltzaile berri lanean hasiko dira. Heldu den urteko deialdian 15 plaza berri aurreikusten dira, baina kopurua handitzeko aukera aztertu beharko dutela azaldu zuen, "bere garaian sindikatuek eta administrazioak adostutako gutxieneko kopuruak lortu ahal izateko".

Bakaiku

Galdera erabakita, erabakitze eskubidea praktikan jartzera

Azaroaren 27ko herri galdeketa egingen da Bakaikun. Gure Haitzak elkarteak bakaikuarrei erantzutea proposatuko dien galdera erabaki du: *Euskal Herri independente bateko herritarra izan nahi duzu?* Galdera larunbat arratsaldean ospatu zen Adosgunean erabaki zen, hartan parte hartzeke gonbidapena jaso zuten 25 bakaikuarren artean.

Baina haien egitekoa ez zen hutsetik hasi. Aurreko asteetan Gure Haitzak elkarteak etxetxeko inkesta banatu zien eta bakaikuarrei euren galdera proposamena egiteko eskatu zieten. 18 jaso zituzten. Haiak guztiak kontuan hartu eta lanketa baten ondoren, elkarteko batzordeak hainbat puntuz azpimarratu zituen. Larunbatteko Adosgunean elkartu zirenei elkarteko kideek galderen inguruko zalantza batzuk argitu eta beharrezko azalpenak eman zizkieten. Guztiek galdera bozketa sekretu



Bakaikuarrek batzarrean, banan-banan proposamenak kutxa barruan sartzen.

bidez aukeratzea erabaki zuten.

Galdeketa sustatu duen Gure Haitzak elkartetik adierazi dutenez, "galderak badu bere garrantzia baina orain garrantzitsuena galdeketa egunean jendea bozkatzera joatea da. Guk gure etorkizuna erabakitzeke eskubidea aldarrikatzen dugu eta parte hartze

handia izatea da gure nahia, ez horrenbeste emaitzari begira, baiezkoa edo ezezkoa den." Elkarteko kideek jakinarazi dutenez, "hemendik aurrera azaroaren 27ko galdeketa antolatzen jarriko dituzte indar guztiak eta herritar guztiak parte hartzeke gonbidatzen ditugu".

Ziordia

"Beldurragatik" estalita egondako gaia, kalera

Ziordiko udalak Memoriaren Hilabetea antolatu du Memoria Historikoa herrian ikustarazteko

Erkuden Ruiz Barroso

Ziordiko Udalak ez omen zuen Memoria Historikoa legea betezen. 1936ko estatu kolpearen ondoren Ziordiko alkatea eta zinegotzi bat erail zituzten eta ez zegoen beraien omenezko plakarik. Abiapuntu hori hartuta Edurne Kasas eta Olatz Irizar udal taldeko kideak lanean jarri ziren. Hamahiru hildako izan zirela jakin izan dute. Hortaz, plaka bakarrik jarri beharrean zerbait gehiago "sakontzea" erabaki zuten.

Memoria Historikoa lantzen zuen talde batek eman zuen abisua. 13 hildako izan ziren Ziordian 1936ko estatu kolpearen ondoren, baita errepresaliatu asko ere. "Gu izan gara sorpresa hartu dugun lehenengoak. Ez genekien gure herrian pasatu zena. Gure herrian pasatu zena dimentsioaz". Biztanleriaren %5a erail zutela azaldu dute Kasasek eta Irizarrek.

Kasas eta Irizar aritu dira datuak biltzen, baina herriko jendearen laguntza izan dute. Adinduengana jo dute, haiei galdetu die eta hartutako informazioa dokumentuetan kontrastatu dute. Hiru familia gaiarekin "oso kontzientziatuak" daudela gaineratu dute, eta hainbat datu eman dizkiete.

Garai hura "estalita" egon dela, "beldurragatik" gai honi buruz ez dela hitz egingen azaldu dute Kasasek eta Irizarrek. Hortaz, Memoria Hilabetea informazio hori ez galtzeko aukera izan dela uste dute biek. "Hasie-



Frontoiko muralak errepublikaren koloreak izanen ditu.

ra batean uste genuen jende gutxiak sufritu edo pairatu zuela gerra baina gero ikusi dugu jende asko zegoela". Abiapuntua 9 hildako izan ziren, eta laster 13ko zerrenda osatu zuten. Errepresaliatuak asko direla gaineratu dute: "ez dakizu non gelditu, sakontzen hasten zara, zerrenda

puzten, eta ez dugu ixten. Agian gehiago agertuko dira".

Memoria berreskuratzeko hilabetea

80 urte pasa dira estatu kolpea eman zutenetik. Urteotan "udal asko" egon direla esan du Irizarrek, baina motibazio gutxi horre-

zerrendak egingen hasi ziren. "Luxuzko hitzaldiak izanen ditugu".

Egitaraua despiditzeko udal bilkura berezia antolatu dute. Bertan eraildakoentzako familiaei eta errepresaliatuak aitortza egingen zaie eta plaka jarriko dute. "Plaka bat udal etxean jarriko dugu eraildako alkatere eta zinegotziaren omenez. Baina hamahiru hildako izan zirela kontuan hartuta, beste plaka bat jarriko dugu hamaiken omenez".

Memoria Hilabetearen ondoren Kasasek eta Irizarrek ikerketarekin jarraitzea ez dute baztertzuten. Hortaz, eraildako guztien familiak topatu dituzte batenak izan ezik. "Gehienak abizen oso ziordiarrek dituzte, Otxoa, Goikoetxea... baina honen abizena kanpoko da, agian Renfeko edo Cementoseko langilea zen, baina ez dugu haren inguruko informazio gehiagorik topatu". Haren berririk izatea nahiko lukete. Kasasek eta Irizarrek ikerketa lanetan izan duten herritarren, idazkariaren eta aguzilaren laguntza eskertu nahi dute.

+www.guaixe.eus

Iñigo Aritza ikastolarako LAN POLTSA

Urtean zehar sor daitezkeen ordezkapenak betetzeko lan poltsa zabalik dago.

2016tik aurrera jasotako curriculumekin osatuko da.



Interesatuak hona idatzi: curriculumak@inigoarritza.eus

nereacnoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatuak (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacnoz.com
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantentze dietak
- Haurdunaldi dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com



Fernando Huici Igoa

Beti gu biyotzien.

Zu familiekuek

Etxarri Aranatzen, 2016ko urriyan 1ien.

Satur Mujika Goikoetxea

Arbizuko apeza

Arbizun hil zen irailaren 30ean 85 urte zituela.

Eskerrik asko herriari eman diozun laguntzagatik.

Arbizun, 2016ko irailaren 30ean




Benigno Mendia Goikoetxea

I. urteurrena

Beti bihotzean, ez zaitugu ahaztuko.

Familia

Urdiainen, 2016ko urriaren 10ean



Nati Otxoa-errarte Ostiza

Zure irrifarra, poza eta maitasuna, beti bizirik egonen dira.

Etxekoak

Arbizun, 2016ko irailaren 29an.



Nati Otxoa-Errarte Ostiza

Bihotzean min dugu, min etsia. Lagun bat genuen, NATI, bizi gogoz jantzia, Gaur, zorigaitzez, aldegin.

Gurekin dirau, orde, zure irrifarraren dizdira, adiskidetasuna eta biziari aurre egiteko ausardia.

Arbizuko zure lagunak

Arbizun, 2016ko irailaren 29an



Mari Flores Lakuntza

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak.

Agur, izeba!

Zure ilobak



Nati Otxoa-Errarte Ostiza

Beti gure bihotzean


Hamarrendaiko zure lagunak.

Urdiain, 2016ko irailaren 29an



Nati Otxoa-errarte Ostizaren

familiak egun hauetan jasotako berotasuna eskertu nahi die inguruko guztiei, bereziki, Miguel Ignacio Zelaia eta Olatz Juaristi, Arbizuko mediku eta erizainari.



Oroigarriak

egiten ditugu



gk KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza, 23-1 Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.

Bidali mezua
eskela@guaixe.eus-
era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	3 LANA/NEGOZIOAK	5 IBILGAILUAK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	4 DENETARIK	6 HARREMANAK	8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**

Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 11€+ BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefona: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK

SALDU

Altsasun etxebizitza itsasia salgai.
300 m². Jantzita. Tel 670 276 457
Aintzane eta 600 495 243 Pello.

Etxarri Aranatzen pisu bat salgai. 84 m² erabilgarriak, berrituta eta eguzkitua. Alokatzeko aukera. Nire telefona 654 23 41 02 da.

LANA | NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Irakasle bat Irurtzunen. Gaitekin erabiltzen den atabala jotzeko irakasle bat bilatzen ari gara klaseak emateko. Tel 636 753 976 Ana.

IKASTAROA

Produktuen merkaturatzea. Lehen

sektoreko produktuen merkaturatze egokirako gakoak ikasteko. Lastailaren 17an eta 19an, astelehenean eta asteazkenean, 16:00etatik 19:00etara, dohai-nik, Arbizuko industrialdean dagoen Utzaganen. Sakanako Garapen Agentzia.

Desfibriladore ikastaroa Uharte Arakilen (urriak 20-21) eta desfibriladore ikastaroaren birziklapen ikastaroa (urriak 27). Lakuntzan. Sakanako Mankomunitateak, CEIM eta Uharte Arakilgo udalaren laguntzarekin, desfibriladorea erabiltzen ikasteko ikastaroa antolatu du urriaren 20an eta 21ean, 16:30etik 20:30era, Uharte Arakilgo udaletxean. Sorosleei, udal langileei, irakasleei eta sorospenetan interresa daukan edozeini zuzendua dago. Ikastaroan bihotz-birikietako erreanimazioak, itotzeak eta bizia arriskuan jartzen duten egoeren aurrean zer egin eta desfibriladorearen erabilera aztertuko dira,

besteak beste. Bestalde, arautegiak bi urtero desfibriladore titulua mantentzeko erreziklatze ikastaro bat egitea eskatzen du. Horrela, Nafarroako Gobernuo osasun departamenduak emandako titulua daukaten guztiei, Nafarroako Kirol Institutuak 4 orduko ikastaroa eskainiko die Lakuntzan, Mank-en egoitzan, urriaren 27an, arratsaldeko 16:30etik 20:30era. Bi ikastaroetan urriaren 11 baino lehen eman beharko da izena, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kir-lak@sakana-mank.eus). Bi ikastaroetan gehienez 24 parte-hartzaile errendako tokia dago, eta beharrezkoa balitz, itxaron zerrenda eginen litzateke.

Pintura eta lenteria. Olatzagutiko Udalak antolatu ditu. Pintura ikastaroa astelehen, astearte eta ostegunetan da kultur etxean. Lenteria ikastaroa astelehenetan eta ostegunetan da, Kamiogaina jubilatutako elkartean. Biak las-

tailetik maiatzera, 17:30etik 19:30era. Lastailaren 17an hasiko dira. Matrikula 52 euro ikastaro hasieran, 51 abendu akaberan. Izen-ematea hilaren 11ra arte egin daiteke udaletxean, 10:00etatik 14:00etara.

TXAPELKETAK

Barandi tabernaren bigarren partxis txapelketa. Urriaren 31n hasiko da, astelehen eta asteazkenean. Bikote bakoitzak 10 € ordainduko ditu. Partidak 21:30ean hasiko dira. Izen-ematea urriaren 27ra arte. Tel 948 46 91 93.

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonua: 1. Betaurrekoak eta betau-

rreko-zorroak: 42. Euritakoak eta miki-lak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetako-

ak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

JAIOTZAK

- **Nahia Irigoien Maldonado,** urriaren 1ean Urdiainen.

EZKONTZAK

- **Jonathan Marquez Bueno eta Erkuden Pajares Garcia,** irailaren 24an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Victoria Senar Senar,** irailaren 21ean Lizarragan.
- **Teodoro Galarza Galarza,** irailaren 29an Urdiainen.

- **Marina Senar Senar,** irailaren 29an Dorraon.
- **Natividad Otxoa-Errarte Ostiza,** irailaren 29an Arbizun.
- **Saturnino Mugika Goikoetxea,** irailaren 30ean Arbizun.
- **Josefina Larraza Lizarraga,** urriaren 3an Unanun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

MOTOZIKLISMOA

NAVARIDER DAY BIHAR SAKANATIK: Bihar izango da motorzaleen topaketa. Iruñetik abiatu eta bertan despedituko da,

Zentralen egingo den festan. Geldialdien artean, 10:00etan hamaiketarako gertuko dira Etxarri Aranazko Aritzalkon.

Automobilismoa

Katxarro zaharrei hautsa kendu eta Bakaikura



Dagoeneko 70 katxarrok baino gehiago eman dute izena. 3 sari banatuko dira.

Bakaikun II. Katxarro Eguna antolatuta dute bihar, larunbatean, goizeko 10:00etatik aurrera

Aurreko urteko arrakasta ikusita, bigarren Katxarro Eguna antolatzea erabaki du Bakaikuko Bakaerkoetxea elkarteak. Bihar, izango da, larunbatarekin. Goizeko 10:00etatik aurrera auto, traktore, kamioi, motor, bizikleta... eta orotako ibilgailu klasikoekin topaleku izango da Bakaikuko plaza. Katxa-

rroei hautsa kendu eta kalera ateratzea, hori helburua. Parte-hartzaileendakoa uzatea izango da eta, ondoren, Sakanatik barrena ibilbidea egingo dute (22 km). Bukatzeko, bazkaria izango da elkarrean (izena emateko 680 825 557 edo katxarroeguna@gmail.com). Hiru sari banatuko dira: katxarro zaharrenari, txukunenari eta Bakaikura etortzeko kilometro gehien egin dituenari.

Aizkora



Resano, Nazabalekin hizketan.

NAFARROAKO II. MAILAKO AIZKORA TXAPELKETA

Mindegia txapeldun eta Resano laugarrena

Etxarriko ferietako igandean Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu zen. Bi kanerdiok, bi 60 ontzako eta oinbiko bat erdibitu behar izan zituzten bost finalistek. Aizkora zaleek aurreikusitako bezala, hasieratik hartu zuen aurrea Mikel Mindegia. Zubietakoa jauna eta jabe izan zen. Aldiz, bigarren posturako lehia oso estua izan zuten Oier Kañamaresek eta Joxean Etxeberriak. Mikel Mindegia 16 minutu baina gutxiagoan despeditu zituen lanak (15:40). Minutu luzea pasata osatu zuen lana Joxean Etxeberriak (17:08). Azkenean, Etxeberriak 7 segundo atera zizkion Kañamare (17:15). Iban Resano dorrobarrak laugarren postuan bukatu zituen lanak (18:24) eta Eneko Saralegi izan zen azkena (18:35). Horrela, Mikel Mindegia eta Joxean Etxeberria lehen mailara igo dira. Iban Resano dorrobarrak bigarren mailan jarraituko du. Floren Nazabal Etxarriko aizkolaria handiak jantzi zion txapela Mindegia.

Mendi lasterketak

Beunza eta Perez garaile Etxarrin

Katarain lakuntzarra hirugarrena izan zen eta Aritz Munarriz laugarrena eta lehen etxarriarra

Eguraldia lagun, eta Etxarriko feriek bikain girotuta, Udaberri elkarteak antolatutako 41. Mendira Joan-Etorria jokatu zen igandean. Nahiz eta lasterketa Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako baliagarria ez izan, ez zen horrenbestenabaritu parte-hartzean, 2015ean 131 korrikalari aritu baitziren eta aurten 115, horietatik 59 sakandarrak, gehienak etxarriarrek, probak herrian duen estimuaren erakusgarri.

Katarain hirugarrena eta Munarriz laugarrena

Goizeko 11:00etan ekin zioten Etxarriko plazatik aterata Urbasa-Andiako bargara, etxarriarrek maiatza jartzen duten tokira, Hartzabalera (1.065 m) iristen den probari. Hara igo eta jaista zen erronka (10 km, 572 m-ko desnibela). Egundotorearekin, Mikel Beunzak hartu zuen hasieratik aurrea eta bera iritsi zen lehena Hartzabalera (28:10). Alkotzekoak jaitzieran erreitmoari eutsiz ion eta helmugara bakarrik iritsi zen (46:11), plazan bildutako jendetza-aren txalo zaparrada artean. Hori bai, ezzuen lortu 2001ean Juan Mari Garinek ezarritako errekorra (42:50) gainditzea eta errekorra apurtuz gero 500 euroko Olalde gaztak saririk gabe geratu zen. 16 segundora sartu zen Iñaki Mihurarraioztarra (46:27) eta 41 segundora Beñat Katarain lakuntzarra

Pilota

Ezkurdiak igandean ekingo dio kaiolari: Arretxe II.a izango du arerio

Igandean, 17:00etan, Lekunberrin (ETB1, ntb)

Udako torneoak bukatuta, txapelketen egutegiari hasiera eman diote Aspek eta Asegarek. Gaur abiatuko da txapelketa eta finala azaroaren 27an jokatu dela aurreikusten da. Irujoren falta sumatuko du txapelketak. Soilik ordezkari sakandar bat izango dugu, berriki Rezustarekin batera Logroñoko Sanmateotako torneo irabazi duen Joseba Ezkurdia arbizuarra.

Ezkurdia igandean sartuko da lehian, final hamaseiretan. Arretxe II.a izango du aurkari Lekunberriko Pilareko jaietan antolatu duten jaialdian (17:00etan, ETB1, ntb). Material aukeraketa ostegunean egin zuten bi pilotariek. Aurreko urtean ere Arretxeren kontra aritu zen Ezkurdia, eta orduan arbizuarrak egin zuen



Ezkurdia eta Arretxe II.a.

aurrera. Edonola ere, partida konplikatu aurretik Ezkurdiak eta ea txapelketan jarraitzeko auke-

rarik duen. Irabazleak larunbatean Bartzelonan Retegi Bi eta Gorkaren partidaren arteko irabazlea izango du arerio, final zortziretan.

Urrutikoetxea, Altuna III.a, Olaizola II.a eta Bengoetxea VI.a final laurdenetan sartuko dira lehian.

Beste txapela bat Bakaikoarendako

Asteburuan Espainiako 22 urtez azpiko Pilota Kopako finalak jokatu ziren Almerian. Binakako finalean Joanes Bakaikoa etxarriarrek eta Jorge Sanchez errioxarrek 10 eta 4 eta 10 eta 6 irabazi zieten Adrian Prado-ri eta Joseba Sarasari. Beraz, beste trofeo bat bildu du pilotari afizionatu etxarriarrek



Irabazleen eta sarituen podiuma, Etxarri Aranazko plazan.

(46:52). Aritz Munarriz etxarriarra izan zen laugarrena eta lehen etxarriarra (48:24), seigarrena iritsi zen Joxeja Maiza bigarren etxarriarra (49:54) eta helmugara 8.a iritsitako Ander Unzurrunzaga (51:02) izan zen probako lehen beteranoa eta hirugarren etxarriarra.

Virginia Perezek ez zuen areririk izan

Emakumezkoetan harrigarria izan zen Virginia Perez gasteiztarrek erakutsitako maila. Saikapen orokorrean 11.a iritsi zen Perez (52:18) eta 8 minutu pasa atera zizkion Oihana Arratibel ordiziarrari (1:00:58). Hirugarrena Irene Genbe zizurtarra izan zen (1:01:27). Lehen beteranoa Rocio Riquez valentziarra izan zen (1:03:15). Lehen sakandarra eta etxarriarra Erkuden San Martin izan zen, helmugan 84.a (1:05:48). Bigarren etxarriarra Maite Zabaleta (1:06:16) eta hirugarrena Maria Goikoetxea (1:07:22).

Irabazleek 100 euro, txapela eta sari berezia jaso zuten, bigarrenek 75 euro eta sari berezia eta hirugarrenek 50 euro eta sari berezia. Lehen etxarriarrek, aldiz, 50 eurokosaria eta Xalok saria jaso zuten. Bigarren eta hirugarren etxarriarrendako eta lehen beteranoendako ere sari berezia izan zen. Guztiendako auzatea prestatu zuen Udaberrik.



Hartzabalera maldan gora.

Sakandarrak 41. Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorrian

1.	Mikel Beunza (Alkotz)	46:11
3.	Beñat Katarain (Lak)	46:52
4.	Aritz Munarriz (Etx)	48:24
6.	Joxeja Maiza (Etx)	49:54
7.	Gorka Santesteban (Etxarren)	50:50
8.	Ander Unzurrunzaga I. (Etx)	51:02
12.	Alatz Agirre (Arb)	52:44
14.	Fidel Jimenez (Etx)	52:52
16.	Alberto Razkin (Etx)	53:02
18.	Beñat Anda (Etx)	53:43
19.	Eukeni Goikoetxea (Alts)	53:59
22.	Iker Flores (Urd)	54:06
23.	Aitor Hernaiz (Lak)	54:07
24.	Ander Unzurrunzaga G. (Etx)	54:10
29.	Fran Araña (Arb)	55:05
31.	Aitor Mozo (Lak)	55:13
33.	Txomin Igoa (Etx)	55:29
39.	David Mutiloa (Iru)	56:25
40.	Patxi Cano (Alts)	56:28
44.	Jorge Holgado (Alts)	56:52
45.	Xuban Aratz Mendiola (Etx)	56:58
48.	Juan B. Mariñelarena (Etx)	57:44
49.	Fermin Azkargorta (Itur)	57:48
51.	Andoni Azanza (Alts)	58:21
52.	Iñaki Alvaro (Alts)	58:42
53.	Alfredo Amillano (Arb)	58:45
54.	Julen Paniagua (Urd)	58:45
55.	Asier Estarriaga (Etx)	58:55
56.	Iban Verdugo (Etx)	59:31
58.	Ibon Ubeda (Etx)	59:47
60.	Carlos Mañeru (Etx)	59:48
61.	Gorka Arratibel (Etx)	59:52
63.	Bernardo Gartzandia (Etx)	59:59
64.	Iñaki Azkona (Iru)	1:00:14
67.	Jon Zabaleta (Etx)	1:02:22
68.	Kimetz Garde (Etx)	1:02:36
70.	Juanjo Mintegi (Etx)	1:02:59
71.	Santi Agirre (Itur)	1:03:02
72.	Jon Goikoetxea (Etx)	1:03:06
73.	Patxi Urrestarazu (Etx)	1:03:15
75.	Alberto Mtz. de Lagran (Etx)	1:03:40
83.	Eneko Lazkoz (Etx)	1:05:27
84.	Erkuden San Martin (Etx)	1:05:48
85.	Maite Zabaleta (Etx)	1:06:16
86.	Joseba Galartza (Etx)	1:06:22
87.	Xabier Etxeberria (Etx)	1:06:43
89.	Xabier Urrestarazu (Etx)	1:07:12
90.	Johannes Garde (Etx)	1:07:12
91.	Maria Goikoetxea (Etx)	1:07:22
92.	Ander Rosado (Arb)	1:07:28
94.	Mikel San Martin (Etx)	1:07:54
96.	Hanot Garde (Etx)	1:08:18
97.	Martin Hualde (Alts)	1:08:22
98.	Iñaki Garzandia (Etx)	1:08:46
100.	Araitx Jaka (Etx)	1:08:51
103.	Unai Urrestarazu (Etx)	1:09:30
104.	Patxi Garcia (Alts)	1:11:06
105.	Aritz Igoa (Etx)	1:11:25
110.	Patxi Atxa (Etx)	1:17:59
111.	Anaitz Igoa (Etx)	1:18:25

Automobilismoa

Iraola nagusi Urbasako arranpetan

www.guaixe.eus

Urbasako Igoerako 80 argazki inguruko argazki galeria ikusgai gure web gunean.

Pantxo Egozkue faboritoari gailendu zitzaion Iraola (3:13.821). **Garikoitz Flores** lakuntzarra hirugarrena sailkatu zen (3:19.076)

Sakandarrak Urbasako igoeran

1. Joseba Iraola (Demoncar R34+)	3:13.821
3. Garikoitz Flores (BRC B-49)	3:19.076
12. Iker Palacios (BRC 05 Evo)	3:46.348
24. Iban Lopez (R5 GT Turbo)	3:55.723
30. Garikoitz Goñi (Megane)	4:01.364
40. Joseba Aldaz (Peugeot 205)	4:09.892
43. Mikel Mendinueta (Peugeot 205 Gti)	4:11.240
49. Iñigo Zelaia (BMW 325 E36)	4:13.867
55. Aitor Fernandez (Seat Ibiza)	4:18.252



Lehendabiziko hirurak: Iraola, eskuinean, Villa, ezkerrean eta Flores, erdian.

Urbasako Igoerak motor zale guztiak asetu zituen. Sakana Motorsport taldeak hainbat laguntzaileekin antolatuta, 36. Urbasako Igoera jokatu zen larunbatean. 94 autok eman zuten izena, puntako pilotuak tarteko, eta 13:30ean ekin zioten entrenamenduei. Horieta 31 nafarrak ziren.

Aurten bi txandatan igo ziren autoak. Lehen txandan 40 inguru itzo ziren, gero Olaztira jaitsi ziren eta segituan gainontzeko ibilgailuen txanda izan zen. "Lehendabizi igoz diren autoek asistentzia gunea autoa prestatzeko denbora gehiago izan dezaten egin da hau" azaldu zigun Sakana Motorsporteko kide Javier Goikoetxeak.

Ez zuen euririk egin, baina Urbasan, goian, lainoa izan zen nagusi goizean goizetik, eta hotza. Entrenamenduetarako lainoa desagertu zen, baina handik tarte batera lainotzen hasi zen berriro. Behean, Olaztin eta portuko lehen eremuetan, aldiz, eguraldia hobea zen. Ondorioz, zein gurrpil jarri eta nola gidatu, buruhauste latza izan zuten pilotuek. "Errepidea hotza dago, gurrpilek ez diote eusten. Autoa joan egiten da" zioten pilotu batzuek entrenamenduaren ondoren, sustoren bat izan zutelaz azalduz.

Istripua

Entrenamenduen ondoren gertatu zen eguneko ezbeharra. Urbasako portuko goialdean, harriztar bat askatu egin zen eta Urbasako igoera ikusten ari ziren bi neska-ren gainean eroritzen. Hanka harapatuta geratu zitzaion neska bati eta hark zuen zauri larriena. Besteak, buruan ebaki bat egin zuen. Ospitalera eramán zituzten. "Atzo

bertan eremu horretan harri erorketen arriskua egon ahal zela azaltzen zuten kartelak jarri genituen, jendea kontuz ibiltzeko. Foralak ere eremua markatuta ikusi zuten" azaldu zuen Javier Goikoetxeak. Guztia bideratu eta gero lasterketari ekin zitzaion berriro.

Iraola Egozkue faborito nagusiari gailendu zitzaion

Zaletuek zioten Pantxo Egozkue (Silver Car EF10) zela faborito nagusi-

aria, bikain lehiatzen zebilelako eta bere auto berriaren turboaren ezagarrigatik, baina, azkenean, aurreko astean Jaizkibel Igoera irabaztetik zetorren Joseba Iraola bizkaitarra (Demoncar R34+) izan zen azkarrena (3:13.821), aurreko urteko Urbasako lasterketa irabazi zuen eta laugarren urtez Espainiako Igoeren txapelduna den Javier Villari (BRC B-49) segundo bat aterata (3:14.529). Garikoitz Flores lakuntzarri (BRC B-49) 6

Nafarroako Txapelketan sakandarrak bikain



Monoplazatan Flores bigarrena izan da, formula librean Lopez de Goikoetxea txapelduna eta Mikel Mendinueta lehen juniorra. Urbasako Igoera Sportech Iparraldeko Mendi Opienerako baliagarria zen eta, horretaz gain, Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketa erabaki zuen. Nafarroako Txapelketan sakandarrak sekulako maila eman dute. Monoplaza mailan Arkaitz Ordoiki iruindarra izan da txapelduna (262 puntu), Garikoitz Floresen (200 p) eta Iker Palaciosen (134 p) aurretik. Turismo mailan Urdazubiko Iban Blanco gailendu da (197 p) eta Mikel Mendinueta arbizuarra izan da hirugarrena (154 p). Hain zuzen ere, Mikel Mendinueta dugu Nafarroako Txapelketako lehen juniorra. Bukatzeko, Formula Librean Iban Lopez de Goikoetxea olaztiarra izan da Nafarroako txapelduna (argazkian, 147 p).

segundoko aldea atera zion Iraolak (3:19.076). Entrenamenduen ondoko lehen igoeran egin zuten denborarik onena guztiek.

Flores izan zen lehen sakandarra, Iker Palacios lakuntzarra (BRC 05 Evo) bigarren sakandarra (3:46.348) eta Iban Lopez de Goikoetxea olaztiarra hirugarrena (R5 GT Turbo, 3:55.723).

Azkenean, 76 ibilgailuk lortu zuten proba bukatzea eta 10 erretiratu egin ziren. Sakana Motorspor-

teketa laguntzaileek lan handia egin behar izan zuten guztia behar bezala antolatzeko.

Sariduna: Haritz Gutierrez

Sarreran jasotako esku-orriko zozketan 2.069 zenbakia izan da zorteduna. Haritz Gutierrezek Los Arco-seko Nafarroako Zirkuituko pistan Kartingean aritzeko 10 minutuko 2 tanda jasoko ditu eta Gasteizko Big Kartingean ibilgailu berezietan derrapeak egiteko 3 sarrera bikoitz.

TRADIZIOAREN ZAPOREA
— 1915 —

LAKET

NAFARROAKO

Txistorra

1. Saria

XVI concurso Santo Tomás
DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

Finalista

VII concurso Navarro de Txistorra
PAMPLONA - IRUÑEA

Laket Artesanos S. L.
Utzubar Industrialdea C/ AP-10 · Arbizu
948 461 882 · direccion@laketartesanos.com
www.laketartesanos.com

ARBIZUKO
TXISTOR
EGUNA
2016
URRIAK 9

Arbizuko Udala

Babesleak

Arbizuko Udala, Laket, Vitea, Monardín, Castiello, etc.

Laguntzaileak

Arbizuko Udala, Laket, Vitea, Monardín, Castiello, etc.

LARUNBATA - URRIAREN 8an

19:00 HAIZE BERRIAK BANDAREN EMANALDIA
IGANDEA - URRIAREN 9an

10:00 HERRIKO FANFARREA HERRIAN ZEHAR
10:30 TXISTOR EGUNAREN HASIERA ETA MERKATUAREN IREKIERA
11:00 NAFARROAKO TRIKITILARIEN BILKURA
11:30 PINTXO LEHIAKETAREN HASIERA
13:30 PINTXO LEHIAKETAREN SAIRI BANAKETA
18:00 MERKATUAREN ITXIERA
17:00 NAFARROAKO TRIKITIXA ESKOLEN ARTEKO I. JAIALDIA

Gaz zozka postuak eta fertararen enbuzaketa, lasterkiak, txistor (txistorra), txistorrak, txistorrak eta txistorrak besteak beste egin diren bezala. Txistorra/txistorra nola puskatu? Izan ere, txistorra txistorra, txistorra txistorra.

ANIMATU ETA PARTE HARTU

Txistor egunean etorri gure menua probatzera!

Menu berezia
Asteburu eta
jai egunetan
Kafetegia
egunero zabaliak

Olatzea
Landa Hotela ★ ★ ★ Hotel Rural

www.hotelolatzea.com

Info@hotelolatzea.com
948 46 18 76 • Faxa: 948 46 18 77
Errota kalea 2/g • Arbizu (Nafarroa)

DANTZA GARAIKIDEA IRURTZUNEN: I. Nafarroako Dantza Garaikideko Jaialdiaren egoitzetako bat Irurtzun izanen da. Heldu den ostiralean Jon Barbarinek parte har-

tzen duen Ados Teatroaren *El chico de las zapatillas rojas* obra ikusgai izanen da kultur etxean.

Yakusi Altsuko eskua, bideo-lehiaketa martxan

Altsasuko hizkeran egin dako bideoak edo Altsasuko hizkerako hitzak eta esamoldeak erabiltzen dituzten bideoak. Horiek dira Yakusi Altsuko eskua bideo-lehiaketara aurkeztu daitezkeen lanak. Bideoak taldeka edo kuadrillak egin behar dira, bakarkako lanik ez baita onartuko. Talde edo kuadrilla bakoitzak nahi adina bideo aurkeztu ditzake. Haien iraupena 5 eta 10 minutu artekoa izanen da. Lehiaketara aurkeztukodiren bideoen gaia libre da. Animazio lanak ere onartzen ditu antolakuntzak.

Araudian jaso denez, bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa edota errespetu falta ez dira onartuko, eta horiek agertzen dituzten bideoak lehiaketatik kanpo geratuko dira. Bestalde, musikak, norberak egin edo bakarlarri edo talde bati hartua dela ere, euskarazko hitzak izan behar ditu. Hitzik gabeko musika ere ametitzen da. Parte-hartzaileek honako datuak eman beharko dituzte: izenburua, taldearen edo kuadrillaren izena, taldekideen izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa.

Altsasuko Udalak antolatu du bideo-lehiaketa, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua-ren laguntzaz. Udalak jasotako bideoak Interneten jartzeko eta jendaurrean proiektatzeko eskubidea izanen du.

Hiru sari

Lehenengoa, Altsasuko Dendarien Elkarteke establezimenduetan gatzatzeko 300 euro. Bigarrena, Altsasuko jatetxe batean lau pertsonendako afaria (100 euroko gastua gehienez). Sari berezia: Altsasuko hizkera hobekien erabiltzen duenari Sakanako gaiei buruzko liburu-sorta emango zaio Sakanako Mankomunitatearen funtsetik. Epaimahaia hiru adituk osatuko dute. Kalitate teknikoa, originaltasuna, sormena eta Altsasuko hizkera kontuan hartuko dituzte.

erregistroa@altsasu.net

Bideoak e-posta helbide horretara Wetransfer bidez bidali behar dira. Azaroaren 15a despiditzen da epea.



Banda eta gaitarako kontzertua

Larunbatean, 19:30ean, Arbizuko plazan

Sakanako bandak, Haize Berriak, Arrasateko gaitariekin partekatuko du Arbizuko oholtza. Emanaldirako prestatutako egitarauan, besteak beste, Mecanotaldearen popurria, mexikar doinuez osatutako popurria, Rip taldearen doinuez moldaketa eta *La Dominguera* jota entzuteko aukera izanen da. Horiekin batera, Haize Berriak bandaren erreperitorioan berria den obra bat eskainiko dute: *Lau Eper*. Pieza hori *Lau teilatu* eta *Eperrak* kantuen nahasketatik sortutako reggae erritmoko doinua da.

bazterretik

Ilazki Martirena

Âme&Art

IRUÑEKO BALUARTEN
BOSTGARREN ÂME&ART
OSPATU DA, URRIAREN 1EAN
ETA 2AN.

Âme&Art jaialdiak diseinua, moda, artea, musika eta gastronomia elkartzen ditu.

Edizio honetan Baluarteke hiru solairuak xarmaz bete dira. Beheko solairuan artista ezberdinek izugarritzko arte erakusketa antolatu dute. Lehendabiziko solairuan sortzaileok gure lanak erakutsi eta saltzeko aukera izan dugu. Era askotako lanak aurki zitezkeen bertan: diseinuzko arropak, bitxiak, osagarriak, dekoraziozko objektuak... erosteko aukera ez da falta izan. Atsedean hartzeko edo lagunartean zerbait hartuz solasean aritzeko aukera ere bazen, goiko solairuan. Umeentzat tailerrak ere jarri dira.

Nik lehendabiziko solairuko azokan emandut asteburu osoa, arropasor-

tzaille gisa izan dut bertan nire lekutxo, eta halaxe, aukera izan dut azkenengo hilabete hauetan sortu ditudan arropak erakusteko eta saltzeko. Nire markaren izena "Ilazki Martirena" da eta jaialdi honek aukera ematen du izena ezagutzera emateko. Oso zaila da, batez ere hasieran, lanak erakusteko gunea topatzea, kontaktuak egitea eta markaren filosofia azaldu ahal izatea.

Bartxilergoak bukatu nuenean, patronajean eta josten trebatzeko bi goi ziklo ikasi nituen. Hauek bukatzean, beste hainbat ikasketa ere egin nituen. Konturatu nintzen joskintza munduan izena edukitzeko eta, batez ere, eskarmentua lortzeko lehiaketetan parte hartzea garrantzitsua izan zitekeela. Egia esan, une hartan ez nekien halako proiektuetan parte hartzea merezi zuenik, denbora eta diru kostu handia baitzekerren. Baina gaur egun, denbora aurrera joana dela, konturatu naiz oso garrantzitsua izan zela.

Denbora gutxi daramat nire kabuz lanean, tailerlean igarotzen dut eguna eta behin kolezioa bukatutako-

an zaila izaten da arropak ateratzea. Âme&Art bezalako ekimenek asko laguntzen dute norberaren lanak kanpora ateratzen eta jendearen artean ezagutarazten. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiet Âme&Art aurrera ateratzen laguntzen duten pertsona guztiei; eta zuek, berriz, bertan inoiz izan ez bazarete, gonbidatuak zaudete hurrengo edizioan bisitan joatera.



Unibertsoarekin dantzan

Dantzarima dantza taldeak Izar Hautsa bigarren obra estreinatuko du Altsasuko Iortia Kultur Gunean bihar

Testua: Erkuden Ruiz Barroso

“Unibertsoan barneratu eta izarrekin dantzatu dugu”.

Altsasuko Dantzarima dantza konpainiak *Izar Hautsa* bigarren obra mustuko du bihar Iortian Kultur Gunean. Dantzariak urte batean prestatu dute obra. Irantzuz Gonzalez Dantzarimako zuzendariak esandakoaren arabera, “esperientzia nabaritzen da”.

Izar Hautsa obran “teknika” gehiago ikusteko aukera izango du ikusleak. “Lehenengo obra prestatzen bi urte egon ginen, izan ere, dantzariak trebatu behar nituen”. Oraingoan, urte bat nahikoa izan da. Koreografiak sortzeko dantzarien “inspirazioa” behar du Gon-

zalezek. “Etxean zerbait sortzen saiatzen naizenean, ez zait ateratzen. Dantzariak ikusi behar ditut”. Dantzariak astean bitan biltzen dira entseguak egiteko. “Potentzia handiko entseguak izan dira”. Denbora “asko” aprobeztatu dutela dio Gonzalezek.

Sorpresak

“Guztiak izar hautsa gara”. Hori da Gonzalezek dantzaren bidez helarazi nahi duen mezua. Telebista ikusten ari zela ideia burura etorri zitzaioala aitortzen du. “Dantza egiten dugunean Unibertsoaren parte garela sentitzen dugu”. Unibertsoan barneratu, izarrekin dantzatu eta munduko dantzak elkar-tuditu Gonzalezek: “munduan arrazak daude, eta gure arteko desberdintasunak daude. Baina, azken finean, guztiak berdinak gara eta sentimenduak berdinak dira”.



Dantza garaikidea izango da oinarri *Izar Hautsa* obran. Dantzariak esperientzia hartu dutenez teknika gehiago sartu du Gonzalezek obra berrian. “Sustraiak obrarekin konparatuz *Izar Hautsa* teknika gehiago ikusteko aukera izango du ikusleak”. Gainera, sorpresak

ere ikusiko ditugu, Gonzalezek “emozioekin” jolastea gustatzen zaio.

Dantzarima dantza taldea dela hiru urte sortu zen. Lehenengo obra *Sustraiak* izan zen eta ia zoko garagarrilean mustuzuten. Ondoren, hainbat herritan errepikatu dute emanaldia “arrakasta handia-

rekin”. *Izar Hautsa* bigarren obra ikusteko bi aukera izango dira bihar: 19:30etan eta 22:00etan. Sarreraren salmentarekin “oso pozik” daudela esan du Gonzalezek, izan ere, 19:30etako saioa ia beteta dago. “22:00etako saioa betetzera animatzen dugu jendea”.

Dantza festarako, ate irekiak



Gaur, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean

Elai Alai dantza taldeak ate irekien jardunaldia antolatu du gaurko. Handi eta txikiak dantza taldera erakartzea du helburua ekimenak. Eta hori dantza festa batekin egiten dute, karrika-dantzarekin. Musikariak eus-

kal doinuak joko dituzte eta jendea dantzan jarriko da. Ez dakienak ere aukera izanen du, gidari batek dantza pausoak azalduko baitu. Beraz, jauziak, jotak, arinarinak, dantza lotuak dantzatzen ez dakitenek ez dute aitzakiarik. Elai Alai taldetik lagun artean edota familian ongi pasatzera eta zerbait pikatzera gonbidatu dute.

Arbizuk hartuko du Nafarroako Trikitixa Eskolen Arteko I. Jaialdia

Igandean, 17:00etan, plazan 10 eskoletako ikasleek parte hartuko dute.

Arbizuko Txistor eguna eguerdian bukatzen zela eta hari segida emateko, Nafarroako Trikitixa Eskolen arteko I. Jaialdia izanen da aurten. Patxi Agirre arbizuarra izan da jaialdia antolatu duena. Hark azaldu digunez, jaialdiak “eskoletako jendea elkar eza-gutzeko balioko du”.

Jaialdian parte hartuko duten eskolek gehienez 10 musikari ekarriko dituzte, nahiz eta ikasle gehiago izan. Eskola bakoitzak bina pieza joko ditu. Agirrek iragarri duenez, batzuek trikitixa eta panderoa joko dute, baina izanen da kantatzera animatuko denik ere. Joko dituzten aireak dantzatzerik egonen den galdetuta, Agirrek “plaza hor-



dago” erantzundigu. Jaialdia musikari guztiek elkarrekin despedituko dute. Oholtzan Lizarra, Lekunberri, Zizur, Txantrea, Berriozar, Etxalar, Lesaka, Elizondo, Olatzagutia eta Arbizuko musikariak izanen dira.

Nafarroako Trikitixa Eskolen arteko I. Jaialdia Arbizuk hartuko badu ere, hurrengo urteetan

beste herriren batetik deitzen badituzte, beste nonbait ospatuko dela azaldu digu Agirrek. Sakanan trikitixak duen osasunaz galdetuta arbizuarrak “ona” dela esan digu: “duela urte batzuetako kopuruak mantentzen dira”. Pozik dago, gainera, “Iruñea aldean jende asko dago. Gauzak egiteko gogoia ematen du”.

Euskal Kantu Txapelketan izena emateko epea zabalik

Lastailaren 26ra arte eman daitezke izena nafarroako.euskalkantu@gmail.com e-postaren bidez edo Facebook-eko Nafarroako Euskal Kantu profilean

Hainbat urtez Nafarroako Kantuzale Elkarteak Euskal Kantu Txapelketa antolatu zuen. Finantza krisialdiak antolatzaileak dirulaguntzarik gabe utzi zituen eta sei urte baino gehiago dira azken edizioa jokatu zenetik. Nafarroako Haur eta Gaztetxoek Kantarien Jaialdiak boluntarioen laguntzaz antolatu dira eta aurten bueltan da Euskal Kantu Txapelketa.

Txapelketan parte hartu nahi dutenek 16 urte beteak izan behar dituzte eta bakarka, binaka eta taldean aurkeztu daitezke. Txapelketan euskal kantu zaharrak, egungoak edo norberak sortutakoak abestu daitezke, musika tresnez edo audioren baten atzeko soinuz lagunduta. Bi saio izanen dira: Antsoingo antzokian, azaroaren 5ean, eta Burlatako kultur etxean, azaroaren 13an. Saio horietan hobekien ari direnak Tafallako kultur gunean azaroaren 27an jokatu den saio nagusira pasako dira. Kantaldi guztiak 18:00etan hasiko dira.

Udako Argazki Lehiaketako sariak, banatuta

www.guaixe.eus web orrian uda irudikatzen duten 49 argazki jaso ondoren, aste honetan bi sariak banatu ditugu. Epaimahaiaren saria Helena Nuinendako izan da. Nekaturren opari txekea eskuratu du, urte guztian eta Nekaturreko edozein ostaluetan erabili ahal izateko. Nuinek lehiaketara aurkeztu zuen argazkian ate handi baten atzean zer dagoen ikusi nahian ari den pertsona bat ageri da.

Eider Carrionek, berriz, Hendaiako hondartzako uretan besoak gora dituzten lau emakumezko eta gizonezko bat ageri den argazkiagatik Marian Navarro ile-apaindegiak emandako saria eskuratu du: udazken-neguko itxura aldaketa pertsonalizatua.



G asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 17%	euria: 12%	euria: 15%	euria: 15%	euria: 15%	euria: 50%	euria: 30%
Min: 7 Max: 19	Min: 8 Max: 20	Min: 6 Max: 18	Min: 6 Max: 16	Min: 8 Max: 15	Min: 8 Max: 15	Min: 9 Max: 13

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	29.5	10	0.3
Etxarri A.	27.6	7.6	4.2
Altsasu	27.5	9	3.4
Aralar	19.2	5.7	5.2
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
9	16	22	30

EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

www.ventanasegoki.com egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor SISTEMA BERRIA KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

LASTAILEKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

Hasier Gonzalez Larrañaga Altsasu

Oihane Etxeberria Alonso Lakuntza

Garbiñe Elizalde Mikelez Lizarraga

Iñaki Goikoetxea Garziandia Etxarri Aranz

>> **11**
galdera

Gixane Santano eta Marian Markotegi
Gixane Estetika Zentroa
Testua: Eneida Carreño Mundiñano



2017ko egutegia

ESKATU ZUREA

Poltsikorako, mahairako, hormarako...

gk KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23, 1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

- Noiz hasi zinen estetizista lanetan?**
Altsasuko ileapaindegi batean 1997an eta handik bi urtera orain nagoen tokira lekualdatu nintzen, Zelai kalera.
- Zentroan zer nolako lanak egiten dituzue?**
Denetatik. Laser eta argizari depilazioa, elektrikoa, manikurak, garbiketak. Jendeak eskatutako guztia, gure esku dagoen bitartean.
- Zenbat zaudete lanean zentroan?**
Orain biak gaude. Nik hiru seme-alaba dauzkat eta lana eta nire bizitza bateratu beharra daukat.
- Gixane, zuk estetika beste modu batez lantzen duzu, ezta?**
Bai, betiko estetika zerbitzuak eskaintzeaz gain, produktuak saltzen ditut, testatutako olio esentzialak eta orain emokosmetika edo kosmetika emozionala lantzen ari naiz.
- Zer da emokosmetika?**
Zentzumenei lotutako kosmetika da. Gure produktu naturalekin Chakren oreka bat lortzen da.
- Nola lantzen da, adibideren bat?**

Adibidez, ikusmena koloreen bitartez lantzen da, dela arroparen kolorea dela makillajea. Entzumenena, hitz politak eta egokiak erabiliz, ukimena besarkaden beharrarekin eta usaimena produktu naturalen usaimenarekin, hauen eragina ez baita sudurrean soilik geratzen (kimikoak bai), usain natural hauek sudurra zeharkatu eta barruraino sartzen dira eta beren gaitasunak aktibatzen dituzte.

7. Zer lortzen da?
Jendeak bakea sentitzen du, gorputz osoa lasaitasun egoera batean dagoela nabaritzen du. Orokorrean sentsazio oso positiboa lortzen da.

8. Nork eskatzen dizkizu horrelako zerbitzuak?
Hobeki bizi nahi duen jendeak, beste alternatiba bat bilatzen ari den jendeak eskatzen du. Triste dagoenak, banandu denak, arazo larri bat izan duenak eta besterik gabe emokosmetika zer den probatu nahi duenak.

9. Nola hasi zinen produktu hauekin lanean?
Emakume askorekin lan egiten dut eta konturatu nintzen adibidez, emakume asko ez dagoela

lodi, hazita baizik, likidoz gainezka. BachLoreen tratamendua ezartzean edo Chakren oreka masajea aplikatzean, pertsona hori pixa egiten hasten da eta hantura hori gutxitzen da. Arrazoia emozioek (stressa edo norbanakoarekin ondo sentitzea) gorputz osoa hankaz gora jartzen dutela. Erlaxatzean gorputzak hobeki erantzuten du.

10. Chakren orekarako zenbat saio gomendatzen dituzu?
Lehenik jendeari probatzeko esaten diot eta normalean 3 saiorekin nahikoa izaten da, norbanakoak bere gorputzeko energia hori igotzeko. Bestela, bezeroak eskatutakoari egokitzen naiz, Golden Piramide etxearekin eta etxerako ere Bach Loreak aholkatzen ditut, etxean ere landu behar izaten delako.

11. Nola laburbilduko zenuke egiten duzun lana?
Naturak eskaintzen dizkigun baliabideen bitartez, pozik sentiarazi nahi zaitugu. Biziberrituzure energia fisikoa, mentala eta emozionala. Nahi duzuenako hemen gaude: 948-563029/686203508 edo gixane@hotmail.com. Facebookaren eta WhatsApparen bitartez ere bai.